


jakim



# AURKIBIDEA

gure eginkizuna.....	1
naparroa euskalerraren etorkizuna..	8
euskal-poesia gaur.....	12
ionesko eta teatroa.....	20
euskaltzaindiaren deia.....	25
bizitzaren hasikera.....	27
sozialismoa modan dago.....	36
euskal-kezka baroja'ren baitan.....	52
euskal-aditza .....	59

## SALNEURRIA

urterokoa: 100 pezta.
alea: 25 pezta
atzerrian: 2 \$.

igara .....	1
goniga .....	8
ibon sarasola .....	12
joan m. torrealday.....	20
eusebio erkiaga .....	25
xabier kintana .....	27
rikardo arregi .....	36
etxalihar .....	52
txomin amasorrain .....	59



————— **jakin** — 24<sup>a</sup> gna. Arantzazu'n — 1967

zuzendari:  
**kandido zubizarreta**

zuzenbidea:  
**arantzazu—oñate**

EUSKAL GAZTERIA  
KULTURA BIDEETAN

JAKIN aldizkariaren xedea e  
kerari laguntzea da, euskeraz  
kultura egiten saiatzea.

herriaren izpiritu ta  
kulturaren alde

# gure

# eginkizuna



Gure eginkizuna (euskaltzaleon eginkizuna, alegia) haundia da, gaitza, eskerga. Mendetan zehar euskaldunek egin ez duten lana geuk dugu gaitzean, batetik; eta gaurko munduak eten gabe dakazkien aldakuntzei eta aurrerapenei dagokien prestatzea dugu, bestetik. Ez da hori dana; sosik ez baitugu, laguntza ofizialik ez baitugu, gure hizkuntza gaztelu zaharren maillan baitago (eta hauxe ez beti!).

Horiek horrela, euskaltzale guziak lan bizian ari dirala suma liteke kanpotik. Baiñan ez dago horrelakorik. Aspaldiko bolara huntan euskaltzaleak "absolutuei" buruz ari gera karaskan: "Euskera absolutu ahal da?", "Aberria absolutu ahal da?", eta abar. Lanaz arduratu beharrea, gure eginkizun larri eta zailla zatitu, erraztu eta azertu beharrea, egiazko betekizunari utzi, eta absolutugintzan eta sasi-kritikan gaituzute. Lana sekulan baiño haundiago dalarik. langilleek potto: langilleek lanik ez; zeren-eta "absolutu ote da lanegitea?". Zer asma zitekean maltzurragorik eta gaistoagorik gure herriari azken ukaldia emateko?

Absolutuen sasi-kritika axal hori, bestalde, filosofia berri-tzat aurkeztutzen da; eta gure ezjakifia mugagabea izanik, aurkikunde ikaragarritzat daukagu (eta gure lanari uzteko oifarriztat) mundua bezin zaharrak diran gogoetak. Erabiltzen dan hizkera sasi-zientziakoa dan ezker, ordea, zurturik gelditzen dira batzuk.

Euskera ez da absolutu bat, hizkuntza ez da absolutu bat, aberria ez da absolutu bat. Baiña, nork esan du besterik?

Euskal Herria ez da absolutu bat, eta ba genekien. Baiñan dauden erresumak eta legeak ez dira absolutu bat, eta hau ez zaigu behiñere gogoratzen.

Absoluturik ez dago, Jaungoikoaz kanpo. Batzuen ustez ezia hori ere, Jaungoikorik ez dagoelakoan. Nork esan du ifioiz munduan dagoenik ezer absolutua danik? Grezia'ko Heraklito'k, Jesukristo baiño lehenago, hau zion: "dagoen guzia igaro egiten da, iraungi egiten da". Lehenagotik ere, Txina'ko Lao-Tseu'ren "Tao" dalakoa zer da-izan, alegiazko itxura aldakor guzien atzean geldirik dagoen Bakarra baizik? Buddha'ren esakuntza nagusia da ere: "dagoen guzia lillura da". Eta txinatar bere jarraitzaile batek ongi azaltzen zuen absoluturik eza: "Gauza guzien izaera igarakortasunean datza: egiazkotasunik ez du, eta oifazeari atxikia da. Egia huntaz ongi ohartzetik jaikitzen da benetako zuhurtasunaren eguzkia. Hori gabe, ezin diteke zifetzko argirik izan".

Erljio guziek, eta betidanik, munduari aldegitia gomen-datu izan dute, munduan absoluturik ez dagoelakoan hain zuen. Joera hortan ez dago "progresismo"-rik batere, beraz.

Su-ta-gar politikaren arazoetan eta eginkizunetan (euskal-dun arazoetan eta eginkizunetan batez ere!) sasi-jainkoak ager-razir nahia, eta sasi-absolutuak salatzeke herra errabiatur, ez da berez joera berri bat. Mundua bezin zaharra da sasi-absolu-tuak salatzea. Baiña hortatik atera nahi diran ondorioak, danak euskeraren kontrakoak... lehendik ere ezagutzen genituen!

\* \* \*

Gure herria geure herria da, eta gure hizkuntza geure hiz-kuntza da. Geureak diralako ditugu maila. Ba dakigu (Euskal Herri'ko zenbait eskualdetan jadanik gertatua dalako) euskera hil ezkeru, Euskal Herria bukatuko litzakeala. Nondik nora da absolutu bat Euskal Herria'ren bukaera hori? Nork esan du euskaldunok hori nahi dugunik? Nork esan du ifioiz herriaz arduratzea eta abertzaletasuna lotsagarriak-edo diranik, eta iz-kutatu beharrekoak? Euskal Herria ez da absolutu bat; baiña Euskal Herria ez da Sodoma. Euskaldunak gera, eta gure herria herri gisa bizitzea nahi dugu. Nork lotsatu behar du: herriaren etorkizunaz kezkatzen geranok, ala gure herria hiltzat hartzea proposatzen dutenek?

Aberria ez zaigu absolutu bat. Baiña atzerria ere ez.

Hizkuntza ez zaigu absolutu bat. Baiña negargarria da hori guri entzunaraztea, gure hizkuntza iflori harrarazi ez diogularik.

Europa'ko edozein herritan jokatu baita gogorkiango bertako hizkuntzaren alde eta herri-nortasunaren alde Euskal Herria'n baiño. Nor da puntu horietaz axolagabeago eta bere hizkuntza baztertzeko gertuago euskalduna baiño?

Praga'n, esate baterako, aski izan da urte askotan politzia bati kalean alemaneraz galdera bat egitea, politziak ezertxo ere erantzun ez zezan; ala txekera hutsez egin zezan, eta zakarki. Inglesez galdetu ezkerro, ordea, politzia horrek berberak... alemaneraz erantzuten zuen maiz.

Gauza bera gertatzen da gaurko egunean Flandre'n: flamenkeraz ez jakitekotan, hobe da askotan, ahal bada, alemanera kaxkarrez galdetzea frantsesez baiño. Erantzuna, halare, bertakoak ez geran ustean, beharbada frantsesez etorriko da. Non dira Euskal Herria'n, erderaz galdetu ezkerro, kasorik ez, ala euskeraz erantzuten duten politziak? Aski da gaur Leuven'en (Lobaina'n) denda baten ezagugarria frantsesez agertzea, ezagugarri hori laister pikutara joan dedin. Gauza bera gertatzen da Gent'en eta Antwerpen'en.

Nola jokatu zuten judutar intelektualek? Ben Yehuda'k garai batean ebaki egin zuen, eta judutarrik bat ere judueraz mintzatzeko gauza ez zalarik (juduera hizkuntza hilla zalako), judueraz baizik aurrerakoan ez hitzegitea erabaki zuen; eta obratu ere bai. Bere semea izan zan lehendabizikoa juduera etxeko hizkeratzat izaten. Agintza hori bete beharrez sortu zan "melizet" zeritzana: liburu zaharretatik ateratako esaera zahar mordoia, intelektualan arteko mintzaira ahula (baiña nahi-ta-ezkoa!). Israel'ek nazio-hizkuntza bakar bat behar zuen, judutarren mintzaira zaharra hain zuzen; eta herriari bidea erakutsi nahiz, intelektualek gogor jokatu zuten, eta juduera nazio-hizkuntza billaka zitekeala erakutsi. Gaur juduerak ba du Agnon idazle bat, Nobel-Saria; eta judutar guziak mintzo dira judueraz. 1947-tik eskola guzietan denboraren 30% Israel'go hizkuntzaz ongi nagusitzen erabiltzen da; eta Israel'go lau Unibertsidadeetan juduera da mintzabide bakarra.

Herri horietan horren "absolutuki" jokatu arren, ez zan "absolutuen" kritikaren izurritea batere zabaldu. Finlandia'n eta Israel'en, esate baterako, nazio-hizkuntzaren kontra jokatu

zuten ere "sozialista" izeneko batzuk. Sueziera eta "yiddish"-era langilleen hizkeratzat onarrarazten saiatu ziran zenbait sasi-  
ezkertar. Baiña herriko benetako intelektualek, gureek bezela  
horrelako katramillatan astirik galdu gabe, judutar herriak  
behar zituen betekizunetan barrena abiatu ziran. Absolutukeri-  
tan gelditu ziranak, aldiz, herriak berak zokoratu zituen.

Noiz zokoratuko guk?

\* \* \*

*Politikaren maillan egin ditezkeanak ez dira "JAKIN"-en aipa-  
tzeko egokiak.*

*Jakintzaren aldekoak bai, ordea.*

*Euskaltzaleok eta "Jakín"-zaleok ba dugu, hain zuzen, zertan  
lanegiñik, nahi izan ezker. Eta absolutuez ari diranek ere bai.*

*Gure hizkuntza oso atzeratuta dago; eta ba dago denontzako  
lanik hizkuntzaren arloetan. Ez dugu hori eskas, ez horixe!*

*Baiña ba ditugu, berriz ere, gure bidetik baztertu nahi gaituzten  
batzuk.*

*Alde batetik, haundi-nahiaren aldetik, goratasunaren aldetik gal-  
tzeko arriskua dugu. Labéguérie'k esate baterako, orain dala gutxi  
hau esan zuen Baiona'n, euskal ikastolen kontrako bere iritzia gar-  
bitzeko: "Premiazkoago iruditzen zait (euskaldun eskolak jartzea  
baiño) Unibertsidadeko irakasleak gertatzea. Horrela, goitik behera  
jietxiaz, irakaskintzara hel gitezke".*

*Ez dugu guk horrelakorik uste. Herri guzietako pizkundera az-  
tertu ondoren, bidea hori ez dala nabarmen agertzen zaigu. Herri  
guzietan eskolatik Unibertsidadera joan izan da; eta ez alderantziz.  
Pianoa ikasterakoan ere lehendabizi Czerny jotzen da, eta gero  
Listz; eta matematiketan lehendabizi aritmetika ikasten da, eta askoz  
geroago tentsoriala. Labéguérie'k, hortaz, bere jokabidearen aldeko  
frogak aurkeztu artean, bere iritzia arinki emana dala pentsatzeko  
eskubidea izango dugu; eta "absolutuen" izurriteari erasten zaiola.  
Helsinki'ko Unibertsidadea izan da azkena sueziera kanporatzen;*

eta Saigon'en aurten nagusitu zaio (eta ez osoki) vietnamera frantsesari. Gisa da.

Eskola da lehenengo urratsa. Eskola, eta eskolaren ondoren daudenak.

Eskola esatean, betebeharrak gaitz bat dugula esan behar da. Euskaltzale batzuk, dirudienek, oso lasai gelditzen dira; eta eskolaren eginkizun hau teknika hutsaren xehetasun ttipi batzuen gorabehera dalakoan, pentsatu ere ez dute egiten gure hizkuntzaren altxatzea guzion arazo ZAIL bat dela. Euskaltzaleon artean dauden diferentziak, halere, ez dira danak xuxenak, sarritan ezjakintasunaren alabak dira, eta ez gutxitan ere ziztrinkeria ondo. Baiña betebeharrak ez da erraza: ez dugu tradizio bat, gure intelektualek aspaldidanik utzi zuten euskera alde batera, eta gure administrazioa ez da sekulan ere izan euskeraz. Gure literatura eta gure herriaren ahotan bizi dan hizkera, aztertu egin behar da: hau oraindik egiten ez duen euskaltzaleak ez du euskaltzale-izena merezi.

Ba dugu ere diruaren kontua. Gure euskaltzalerik jakintsuenek eta sonatueneak, euskeraren gaurkotzearen eginkizunean buruzagi jarri behar liraken horietzek (iñor aipatu beharrik ba ahal dago?) beren ordurik eta beren indarrak gehienak bizibeharraz egindako lanetan galtzen dituzte, euskeraren gorabeherak "ameslari" porrokatu batzuen solas-gai gelditurik.

Gure erakunderik inportanteenak berak, laguntzarik ezaz, erdizka baizik ez dira ari; askotan, beren barrengo lankideak akitu arte bortxaturik. Zenbat diru erabiltzen du Bizkaia'k esate baterako, erderazko irakaskintzan? Ez dakigu urteko zenbat milloi diran. Euskeraren aldeko elkargo nagusiak, dazkigun lege-eragozpenenez gain, urteko 145.000 pesetaren bidez egin behar ditu bere eginkizun guztiak... Zeren zerbitzutan egon ditekera erakunde bat horrela dagoeno? Galdera hau askok egiten dute. Horra hor oso "errelatibu" ez diran puntuak; baiña gure euskaltzaleek aipatu ere egiten ez dituztenak.

Euskaltzaindia eraberritua dago eta lanean hasia. Gaur buruzagi dauden euskaltzaleek, beren ezagutzapenengatik eta bere nortasunarengatik, gure herriaren konfiantza irabaz dezatekela iruditzen zaigu. Zergatik ez hasiko euskaltzaleok lanean, egiazko problemak aurre egiten? Hortarako euskaltzale guziok alkar aditu behar dugu. Eta ez dugu funtsean besterik nahi. Euskaltzaindia'k du bere hitza,



bere eginkizuna ausarki beteaz eta egoeraren maillako neurriak hartuaz.

Euskera idatziaren aldetik, lehenengo, bai irakurlearen aldetik eta bai argitaratu beharraren aldetik ere, orain dagoen nahaste-borrasteari tenk egin behar zaio. Kondaira-Aurre'tik atera behar gorria dugu: gure kasetak eta liburuak irakurteak lotsatu egin beharko ginduzke euskaldunok, eta ez gaitu egiten. Idazkera dago, batetik: orain bezela jarraitzea eziña da. Baiona'ko erabakiek zerbait lagundu dute, gure ustez, batasunaren aldera euskaldun idazleak eramanaz; baiña puntu hortaz ere Euskaltzaindia'k moztu behar du eztabaida, iritzi bat garbi jakinaraziz. Herri modernu guzietan onartu da idazkera bakar bat, eta idazkera hortara moldatzen ez diranez "analfabeto", ez-ikasiak dirala esan ohi da. Noiz gure artean? Euskaltzaindia'k gaurte egin beharko luke hori, batere luzatu gabe. Ben Yehuda'ren Judueraren Batzordea hirurogei urte lehenago hasi zan juduera idatziari buruzko lanean, erresuma-laguntza izan baiño. Gaurte izan diteke, gure ustez, Euskaltzaindia'ren garaia. Bere eginkizuna betetzen hasi ezkeru, larderia emendatuko zaio eta euskaltzaleon laguntza handiago egingo.

Hiztegiaren aldetik, bigarrenik, nahaspilla ez da txikiagoa. Euskaldunek berek gero eta hobekiago dakite erderaz, eta gero eta okerrago euskeraz. Hau hala izanagaitik ere, euskaltzaleek parre egiten diote gaur hizkuntza landu eta ikasi beharrari; eta, arinke-riaz beterik, gero eta arrotzago idazten dute, gero eta erdaldunago; baiña gero eta gutxiago kezkatzen bide dira beren eragin kalte-garriaz. Absolutuen gogoetari utzi, eta euskera gihartsu batez egi-teko kezka betetzea beharrezkoa da guztiz.

Eskolako irakasleen beharra ez da txikiagoa. Eta behar hau larria da. Bihar milla eskolatan euskeraz ari izateko aukera etorriko balitzaigu, zer egingo ote genuke?

Zer irakur dezake gaur, bestalde, euskaldun huts batek, euskaldun eskoletan hezi dan gazteak, alegia? Zertaz mintza diteke euskeraz, "leche condensada" eta "aspiradora" oraindik nola esan erabaki ez badugu? Hau ez bide zaigu ardura; eta gure erakundeek ez dute hauzia garbitu.

Jakiña. Askoz errazago da "absolutu"-ei buruz eta sasi-filoso-

*fiez noiz-behinka hitz-asperturen bat egitea... Errazago da hori  
Atsular'en, Mogel'en eta Gregorio Arrue'ren liburuetan billatuaz  
euskal etorria piskanaka... euskalduntzea baiño!*

*Euskaltzaleok: jokabidea eta kezkak guztiz aldatzeko garaia  
dugu. Osoki dagokie euskaldunei gu gure herriaren zerbitzutan jar-  
tzeko eskubidea. Ben Yehuda izan bekigu eredu, eta ez Unamuno.*

**igara**

# NAPARROA

---

## ta euskalerrriaren etorkizuna

gomiga

Euskalerrria zazpi probintziak osatzen dute. Euskalerrriak egunen batean dizdira egingo badigu, probintzi bakoitzak bere egiñalak egin beharko ditu.

Gerokoan uste osoa dugu. Bai. Itxaropen dugu egunen batean Euskalerrri osoan euskal kultura loratuko dala. Uste osoa dugu, goiz edo berandu euskera euskaldun guzien izkuntza izango dala, zazpi probintzietako ikastetxe guztietan nagusi jarririk. Ez gera ameslari, ez.

Ortarako, esan dudanez, probintzi bakoitzak lanari ekin behar dio. Guziok jarri behar ditugu gure arrilanduak etxea osotu dedin. Baiña etxe eraikitze ontan Naparroak eginkizun berezi bat du.

Naparroa Euskalerrri-ko giltzarria da. Naparroa izango bai da zazpi probintziak batera uztartuko dituana.

Naparroa Auiamendi aruzko ta alde ontako probintzien zubia dugu. Eta au bai kondairaz bai egoeraz. Bi auek alkar josiak bai dira.

Ezin dugu ahaztu Naparroa izan zala bere askatasuna azken galdu zuana. 1200 arte Gipuzkoa'k artueman estuak izan zituan Naparroa-rekin. Urte ortan zalantzan ibilli zan bere burua nori makurtu, Castilla edo Naparroari. Azkenean lendabizikoari itsatsi zitzaion.

Gizaldi terdi geroago, Arabak berdin egin zun Arriaga'ko Elkargoaz (1332), Gazteiz Naparroako Santxo VI'k jasoia izan arren.

Naparroak osteria 1515 arte bere burua tente izan zun. Bere nortasuna nola autsi zioten guziok ongi dakigu. Eta orain ere zazpi probintzi artean bera dugu garaiena lege arazoetan.

Naparroak Aragon'ekin ere zerikusi aundia izan du. Hueska'ko lurraldeak orain ere euskal kutsua dute. An bizi izan geranok berehala ohartu gera. Izan ere 1035 arte errezume biak alkar ziran. 1076'n berriro bat egin zuten 1134 arte.

Izkuntza aldetik Naparroak zeresan aundia du. Naparroako euskalgia zubia dugu bestaldeko anaieri ulertzeko. Bein euskeraren batasunera etorriko bagera, Naparroako euskera partzuer berezi bezela sartuko da. Ontan ia guziok bat gatoz.

Tamala benetan napartarrak **beren** izkuntza ahaztu izatea. Naparroako Santxo Jakintsuak euskerari "Lingua Navarrorum" deitu bai zion. Baiña ahazte ori askok uste duten baiño berriagoa da.

Gogora dezagun Moret josulagunak esaten diguna. Moret au Naparroako idazlaria zan. XVII'gn. gizaldia arte euskera napartarren izkuntza bakarra omen zan. Mugako errietan soilki erabiltzen omen zituzten euskera ta erdera.

Mogel'ek 1802'n argitaratu zun "Peru Abarka". Ordurako Axular'en "Geroko Gero"-k ia bi gizaldi bizitza zuan.

Jainkoak bereziki onetsi du Naparroa. Euskalerrian beste ifun ez bezela arkituko ditugu Naparroan gure arbasoen oroigarriak. Euskalerrriak kondaira bat badu, Naparroari esker batez ere. Euskaldun guziak anaiak gera, baiña sendi guzietan bezela anai batzuk besteak baiño gorago igotzen dira. Au napartar ez geranontzat pozgarri da.

Naparroak bitxi zoragarriak gorde dizkigu etorkizunerako: Iruña'ko eliz eta etxeak, Leyre, Olite, Iratxe, Izarra (Estella), Tudela, Oliva, e.a. edozein erri arro jartzeko modukoak.

\* \* \*

Euskaldunok zorigaitz asko ditugu. Ontaz neu ere sarritan mintzatu naiz. Euskerari begira ezker, adibidez, eskoletan sarrerik ez

izatea, guraso askoren arduragabetasuna, irakurleen-eza, e.a. Baiña egiaari bekokia eman dezaigun: euskerak eta euskal kulturak duan zorigaitz bildurgarriena auxe da: Euskalerrria txikia dala. Ez gaitezen itxutu ez dagonari eskua luzatuaz.

Euskalerrria tipia da, bai. Eta Euskalerritik Napparroa kendu ezkerro... Obe ez pentsatzea, ori ifioiz ez dala gertatuko uste osoa bai dugu. Baiña laburki aita dezagun Napparroa bere 10.000 kilometrokin luze zabaleran beste probintzi guziak batera baiño aundiago dala. Eta, esan dudanez, euskaldunok kilometro bakoitza bizi edo ez biziaren auzia dugu.

Euskalerrrian azkenaldi ontan idiki izan dan lendabiziko ikastetxe nagusia Iruña'koa izan da. Au jakin genduanean biotza pozez eta burua itxaropenez bete zitzaigun euskaldun askori. Neu ere izkuntzez eta ezikeraz bizkaitarra naiz, gero gipuzkera ikasi ta euskalki ontan idatzi arren. Baiña Napparroan Ikastetxea idiki zanean Euskalerrri osorako etorkizun eder baten zantzua iruditu zitzaidan.

Iruñatik Napparroa osora euskal kultura ta izkuntza zabalduko dirala uste dugu. "Amigos del País" ta "Príncipe de Viana"-ko beste euskaltzaleak lan ortan ari dira. Iruña'ko Ikastetxe Nagusian euskera nagusi jarriko danean, gure ametsak beteko dira. Euskaltzale jator oiek zuzenean edo zearka ortara dijoaz.

Iruña'ko Ikastetxearen kerizpean bezela Deusto'koa goratu da. Ikastetxe ontan irakasle izango geranok oituka diogu: azaleko eztabaidak utzi ta egi sakon bati amor dezagun: euskaldun guziak anaiak gerala. Guziok alkarturik Euskalerrriaren alde jokatu behar dugu.

Napparroako ekonomia oraindik ez da Bizkaia ta Gipuzkoaren mailara igo. Baiña laister Napparroaren antza auzi ontan ere zearo aldaturko da. Napparroa deitua da España'ko probintzi aberatsenetako bat izatera. Eta ori laister, zarrak diranak ere ikusteko moduan.

\* \* \*

Irudipenez "Iru erregen maian" nago, 2.390 metro mendi goran. Euskalerrriko beste mendi guziak oñazpean ditut. Emendik eskuak ezker eskubira luzatuaz Auñamendiko bi alderdiak banatzen ditut. Euskalerrria, bat, sasi mugarik gabe. Emendik Miarriz eta Mauleon'go euskaldunak ikusten ditut, alde ontako euskalduneri eta batez ere Napparroari begira. Napparroaren zear zurubi baten bidez bezela guregana datoz eta gu aiengana.

1515 arte Naparroa España ta Fantzia'ren artean dabil. Napartarrak espafiarrren eta prantzesen doai bikaiñenak odolean ondoretu nai dituztela ematen du. Napartarrak orain ere —beste euskaldunak baiño areago oraindik— Euskal Frantzian etxean dira. Gorputzez ere bizkaitar edo giputzena baiño Bidasoa aruntzko euskaldunen antz geiago eman dezaiekegu.

Lapurdi, Benabarra ta Zuberoak gero ta artueman estuagoak dituzte Naparroarekin, ekonomi buruauste aundiak bai dituzte. Laister bide nagusi batek bi alderdiak alkartuko ditu.

Naparroa asi da molde ikusgarri batean bezela Auiamendiak lantzantzen dituan bi euskal lurraldeak banatzen, osatzen, etorkizunerako gertatzen. Mauleon'ek Bilbo'ri eskua estutu dio Naparroaren bitartez.

Naparroa ta Frantzia ezkongai dirudite. Alkarteak ere sortzen ari dira, Baiona-Iruña, Euskaltzaleen Biltzarra ta "Amigos del País", e.a.

\* \* \*

Naparroa bere nortasunera dator. **Primum vivere, postea philosophare.** Naparroari orain arte, azken gizaldi auetan, gaurko Galizia'ri eta guri ere gertatu zaiguna agitu zaio. Bizibeharra dala-ta bertze burutapenak alde bat utzi ditu. Ori eifi askoz aundiagoan Andaluzia'n gerta oi da gaur egun.

Baiña Naparroa lore baratza billakatzen ari zaigu. Lantegiak, bi-deak, diruetxeak, eskolak ugaritzen doaz. Etorri zaio Naparroari "Ad philosophandum" ordua, bere egizko nortasuna ezagutu ta osatzeko.

Euskal kondairari begira ezker, azken ogetamar urte auetan gertatu diran gertakari garrantzitsuenetako bi auek dira: Frantzi'ko eta Naparroaren euskal konzienziaren esnatzea, irazartzea.

Etorkizuna goizargiz ikusten dugu. Euskalerrria bere gezurrezko jantziak erazten ari da. Euskalerrria guztiok eratu behar dugu, baiña napartarrak batez ere. Ez gera igarleak, baiña kondaira ta gizarte giroari begira gaude. Ez dugu zalantzik, emen zirriborrakatu ditugun zehatzak denborak baieztuko dituala.

# euskal-poesia

## gaur

- historia apur bat
- etapa berri bat
- gabriel aresti
- mikel lasa

ibon sarasola

### 1 SARRERA

*Segurki, poesia izan da (eta da, gaur egunean ere) euskal-literaturako alor landuena, ugariena eta interesgarria. Gertaera hunek euskal-literaturaren subdesarrolloa agirian jartzen du, poesia literatura guztien fruitu lehendabizikoa eta maillarik apalena baida. Dana dala, gaurko euskal-poesiaren egoera esperantzakorrak, euskal-literatura osoaren berpizkundea (hots, pizkundea) espero erazten du.*

*Bainan pentsamendu hauen gogoan erabiltzeari utzirik, lotu nadin nere lanaren egitekoari.*

*Nire lan hunek, eskema baten balorea du, besterik ez. Es-*

kema guzien akatsak bereganatzen ditu. Jardun-bide bat proposatzen eta hasten dut, euskal-poesiaren kritikan ea guzia egin-kizun baida.

*Eskema bat: beharrezkoa da hau gogoan edukitzea, lerro hauen sentidua entelegatzeko.*

## 2 BEHARREZKO HISTORIA APUR BAT

### a) AITZOLEN AURREKO POETAK.

—**Detxepare** poeta on bat izan zen (eta da) dudarik gabe. Haren arkaismoak, realismo bortizak eta erabiltzen dituen garbiak (nata ere gaien erabil-moldeak), Erdi-Aroko poetatzaren fruitu berant (beti berandu euskaldunak!) baten aurrean gagozela ematen dute aditzera. Detxepare'n poesiak ba du sortu-motibo bat, poesiaren muinoz kanpo: "Eskuara ialgi adi plazara". Ahapaldi hau (bere ondorio guziekin) asko klar mintzo da egillearen asmo ta nahiaz. Agian, Detxepare'ren garaian euskerak literatura ugari eta aberatsa izan balu, ez zukean harek luma hartuko eta poesirik egingo...

—**Ohienarte**'k, nahiz metrika-teknika hobeki ezagutu eta menderatu, ez du Detxepare'ren indarra. Haren herrikoitasuna galtzen du hunek. Ohienarte'n idaz-moldea hotza ta garbi-zalea da bere poetatzaren arabera.

—Joan dan mendeko erdi aldean, euskal-poesiak Bidasoa ibaiara iragaiten du, hau da, autore eta obra inportanteenak Bidasoa'tik honuntz aurkitzen dira. Poesiaz esan duguna, euskal-literatura osoaz esan ditekete. Gertaera hau inportantea da, bi euskal-literatura hauen izate-moldean ezberdintasuna gauza ezaguna baida.

—**Vilinch** da euskal erromantizismoak eman duen idazlerik erromantikoena. Haren poesiaren kexa biluzia eta tristezia gazi-geza, irudiz banalak, benetako poeta bat adierazten dute. Bere euskeraren pobreziazatik (Donosti'ko euskera urria...) ez du Vilinch'ek leku nabariagoa euskal-literatura baitan.

—Lore-jokoak dirala-eta, zenbait poeta berri azaltzen zaizkigu. **Arrese, Enbeita, Jauregi, Sagarzazu**... Erromantizismo dekadent baten errepresentazailleak dira. Batzuetan bertsolarien kutsua, besteetan Espainia'ko bigarren edo hirugarren maillako poeta ruralisten kutsua nabarmentzen da haien baitan.





Bitartean, Frantzia aldean sinbolismoa hedatzen da. Korrante berriak iragaiten dira kanpoko literaturen zear. Euskal-literaturak ez daki mogimendu hauen berri. Euskal-literatura bere baitan isikatzen da. Europa'ko aberastasuna arbuiauz, bere pobretasuna eta agortasunaz jardun nahiean, euskal-kultura itxi bat izaten darrai. Giro hunen barnean, Aitzol'en errenobazionea ematen da.

#### b) AITZOLEK ERAGINDAKO ERABERRITZEA: OLERKARIAK

—“Euskaltzaleak” sortzen da. Aitzol'en eraginpean, euskal-poeten lehendabiziko belaunaldia ezagutzen dugu. Belaunaldi hitz huni ematen diodan sentidua, oso zabala da. Ez dute euren ideia poetikoagatik osatzen belaunaldi hau, euren mundu-irudi eta euskalduntasun “berezia”-gatik baizik. Poeta-tankera berezi ta diferent bat sortu, lortu eta osatu zuten, “olerkaria” hitzaren bidez ezagutzen duguna. Belaunaldi huntako poeten izendatzeko, “olerkari” hitza erabilli behar litzakela uste dut. “Olerkari” hitza —garbizalea, beste baten truke ezarri nahi dan hitz “berria”— garai hartako mogimenduaren agerlari bat da, ezarri nahi zan euskalduntasun “prestu” ta berri baten irudia, poesia herrikoia (herri-poesiari) eta literatur-tradizioneari edukirikako arbuioaren adieraz-bidea...

Ainitz poeta; batzuek “herrikoia” (bainan garaiko giroak markatzen zituen arauak oroz gain errespetatuz), besteak klasizistagoak (eta garbizaleagoak, garai hartan ez baiziren gauzak ondo bereizten). Hiru eskola: Lizardi'rena, Orixe'rena, Lauaxeta'rena.

Erromantizismu berantkor eta standarizatu baten, eta milla bider landutako soloa goldeatuz sortzez auldutako presinbolismo baten artean zalantzatzen da olerkarien poesia.

Iritzi hunek —sinplifikazio baten fruitua— sinplifikazioek erakartzen dituzten akats guztiak ditu. Hala ere haren baliotasuna arrixku gabe geratzen da, oar hau ezarritz gero.

—Lizardi'ren obra laburraren judikatzeo ere aurre-esan hauek gogoan erabilli behar dira. Lizardi poeta on bat izan zen, besterik ez. Gazteegi hil zen poeta on bat, garaiko giroaren influentzi gaixtoa sufritzera behartu izan zena, olerkari izatera bortxatu zuten poeta bat. Gazteegi hil zen eta ez zuen denborarik izan bere estiloaren anarkia estetika berri batez gaınditzeko, ez zuen denborarik izan (ez giro egokirik ere) atzerri aldeko idazkera eta teknika berrien berri jakin eta bereganatzeko, eta estetika horri eta Euskal-Herri kanbiakorrari egoki letorkioken poesi-mota baliodunago bat burututzeko.

### 3 ETAPA BERRI BATEN AURREAN

#### a) JOANAK-JOAN

—Gerlarekin hasi zen ezinbesteko ixil-aldia urratzen danean, inertziz-edo, gerla-aurrean azaltzen zuen tankera erakusten digu euskal-literaturak. Poesian, Lizardi'ren eskola da nagusi.

—Bainan gerla-denborako gertaerak, ez ziren nola-nahikoak izan Euskal-Herriarentzat. Ez dakigu (oraindik behintzat) onerako edo gaitzerako izan ziren. Izan zirela besterik ez dakigu. Ez da gaiñera gai hau arinki tratatu ditekenezakoa. Hau dala-eta, hizkuntza eta literatura aldetik gauzak ikusten entseatuko naiz.

—Alor baten aldakuntza hau nabarien ikusi badezakegu, euskal-literaturaren alorrean da. Ez gera oraindik gauza gerla-aurreko esperientziaren judikatzeko, haren zabaltasun eta sakontasun osoan. Dana dala, irakasbide batzuek atera ditzakegu esperientzi huntatik. Oso esperientzia interesantea izan zen dudarik gabe, jarrai behar ez dan bidea ikusaraz baiderauku. Eta hain da hau ongi ikusia eta ikasia, non ez baidut uste berriro purismoaren tentazio tentatzilleari amor emango diogunik euskaldunok. Besterik ez baldin bada, ikusi dugu behintzat nundik ez dugun behar aritu. Ez da pensatzen iadanik gerla-aurreko idazleak euskal-literaturako onenak direla, ez da pensatzen ez zela nehoiz gerla-aurrean bezain ongi eskribatu. Arbuia-tuak izan ziren idazle zaharregana jotzen da berriro euskera ikas-teko orduan. Eten zen literatur-tradizioari berriro jarraitzeko ahale-giñak egiten dira. Euskal-literaturaren oinarriaz mintzatzean, **Axular**, **Duvoisin**, **Mendiburu** proposatzen dira maixu eta gidarizat, euskera herrikoi, klar, garbi, batu eta ulerkor bat lortu nahirik.

Kanpo-aldeko literaturak ezagutzeko leia eta grina sortzen da euskal-idazle baitan. Prejuizio eta aurre-iritzi gehienak baztertu egiten dira eta mitoak alde batera uzten. Bide berriak, zearo berriak urratzerat abiatzen da euskal-literatura. Hasi gero, euskaldunak kon-turatzten dira zenbat kalte egiten duen kanpoari begiak itxita ibiltzeak, gure baita ertsiari lotzeak, mendearen seme ez izan nahi izateak...

—Agirian dago gure literatura etapa berri batean arkitzen dala. Orain arteinoko etaparik esperantzatsuena eta interesgarriena izateko baldintzak ipini dira, gaiñera.

## b) GANDIAGA, MIRANDE...

—Giro berri hunek bortxaturik, Lizardi'ren arbolak (iadanik ia agorra) bi fruitu berri eman ditu: **Bilbao-Monasterio** eta **Gandiaga**.

—**Gandiaga** sinbolista da. Ainitz euskal-poeta sinbolista ("sinbolista" hitz hunekin sinbolista diranak eta izan nahiko luketenak bil-tzen ditut) baitan arkitzen ez dan teknika, azala eta muinaren arteko egokitasun bat arkitzen dugu Gandiaga'ren poemetan. Gorputz sendo bat azaltzen dute hauek. Horrela ulertu dut J. San Martin'ek diona, hau da, "bere **ELORRI** sinbolismuko euskal poemarik onenetakoa dugu, noski". Bestalde, oso finkaturik ikusten dut Gandiaga euskal-poetatza eta euskal-olerkaritzaren barnean, eta hau oso gauza inportantea da, kutsu hau gaurko poesiaren teknika eta giroakin alkarlotzen danean. Hau izan diteke Gandiaga'ren akatsik handiena, ez baidu (oraindik), ene iritziz, alkar-lotze hau lortu.

—Ifar-aldeko Euskal-Herrian, ez zituzten izan lehenago aitatu-tako gora-beherak. Ez da beraz harrizkoa jakitea handik etorri zaiz-kigula bi poeta, euskal-poesiaren olatu berriaren eragilleak: **Ihartza** ta **Mirande**. Bi poeta independente, olerkarien mogimenduarekin zer ikusirik ez dutenak.

—Gutxik menderatuko dute poesiaren forma gure artean **Mirande**'k bezain ongi. "Poesia hutsaren" aldekoa da: hunen jakiteak, hura ulertu arazten digu. Haren poesian nabari da halako gose handi bat, gauza raro eta arrotz guziaz. Paganismo-usaia dario haren poesiak, euskal-poesiaren baitan ezagutzen ez ginuena.

—Esaten du Aresti'k, **Ihartza'z** mintzo dalarik: (haren) lana... isilagoa da: bizi den lurrean hartzen du oina, bere herriaren berezita-sunean anparatzen da, eta poesia zahar baten durundio herritarra darama kultur-literatura baten zimentarrian".

## 4 GABRIEL ARESTI

—Hauek izan ziren **Aresti'k** aurkitu zituen elementoak, bere traiektoria harrigarria hasi orduko (hots: Aresti ea zerotik hasten da). Hau gogoan euki behar da haren obraren desarroloa judikatze-ko.

Lehenengo poesiak, mundu-haiza guztietara zabalik, kezka bat adie-razten dute. "HARRI ETA HERRI" burutu behar zuen literaturak beharrezkoa zuen sinbolismoaren bideetan jardutea, etapa hau gaindi-tzeko. Egiteko hau Aresti berak egin behar izan zuen, "Maldan behe-

ra" (1959) poemaren bidez. Poema hau, zailla, densoa, metrika aberatsa duena da, eta sinbolismo bortitz, sakon eta berri baten oartzuna dakar euskal-poesiara.

—(Oar bat: Sinbolismo hitz hau, bere sentidurik zabalenean erabiltzen dut lan huntan. Aresti'rekin, urrun gaude Frantzia'ko "Simbolisme" deitu mogimendutik. Bestalde, "sinbolismo" hitza nahikoa ilun eta eztabaiezkoa da berez. Horrela, Verlaine, Mallarme, Rimbaud'en poesiak, Williers de L'Isle Adam eta Barbey D'Auravilli'ren prosak eta Maeterlink'en teatroak azaltzen dituzten alkar-guneak, negatiboak dira. Nahiz eta ondo ikertu arren, ez dute autore hauek gauza handirik arrontean azaltzen. Hauetatuz pentsatuz, Aresti'ren lehenengo etapa hunen sinbolismoa, teknikan datzala esan ditek. Mamiaren, azalaren eta teknikaren arteko desegokitasuna, oso gertaera arrunta da gaurko poeten artean. "Harri eta Herri" burutu arte, ez du Aresti'k bikoitasun hau urratzen eta gainditzen).

—"Maldan behera"-k (Miren eta Joana'ren historiaren bukaerak) hasten duen zikloa, (ziklo labur eta beharrezkoa) "Zuzenbide debekatu" (Miren eta Joana'ren historiaren hasiera) liburuarekin osatzen du. Bigarrengo liburua Miren eta Joana'ren aurreneko prologoarekin bukatzen da (!). Prologo hunen irakurtzeak, sinbolismoaren sentidua zearo adatu dala ikusi arazten du: "Irakurleari eskatzen diogu eztezala poema honetan intentziorik ikusi..." Poema hau argitaratzeko dago, EGAN-en azaldu zen laburpen urria ezik. Tamalgarria benetan, poema hau izan baiditeke Aresti'ren eboluzioa ezagutzeko giltz on bat, "Harri eta Herri" explikatuz lezakeana. Duela denbora gutxi, haren etxean gau-pasa izan nintzenean, nire eskuetan izan nuen orijinala. Gabriel'ek berak pixka bat hitzegin zidan hortaz poemaren sentidua adieraziz...

—Bi urteko ixil-une bat urratuz, "Harri eta Herri"-ren mintzo ozena (1963) ematen du aditzera, euskeraren onerako. Gertaera hunekin "Aresti'ren afera", Euskal-Herri guzietara hedatzen da. Polemikak sortzen dira, eztabaidak, hitz-bideak. Sektore reaktionarioenak euren kritika baldarrak prestatzen hasten dira. Bizkai-aldetik —ezaguna da Bizkai-ko euskal kulturaren subdesarrolloa—, "Arro ta ero" dalako baten oartzuna heltzen zaigu. Bitartean, euskaldun zuhurrenak, "Harri eta Herri" liburuaren sentidu profetikoa ulerturik, Aresti'ren gainerantzeko obren ezagutzerat abiatzen dira, haren obren aberastan ugaria eta berria mirestera, euskal-alorrean sortu dan arbol berriaren fruituen dastatzerat. Haren obra, egintza eta persona, sinbol bilakatzen dira. Aresti, hazitzen ari dan Euskal-Herri berriak (gaurko

gure Euskal-Herri industrializatu hau) sortu duen idazle eta autorea da.

—Tarte handia dago aurreko obren eta “Harri eta Herri”-ren artean. Hau egiztatzeko, azkenengo hau irikitzea besterik ez da behar. Egitan, holako teknika-ausardiarik, holako sintaxis bortxaturik, ez ginuen ordu arteino ezagutzen, ez besteen obretan, ez Aresti berberaren gainerantzekoetan. Bainan ez da hau Aresti'ren obraren kritika egiteko ordua, ez tokia. Hala ere, esan nahi dut, amaitu baiño lehen, Mikel Lasa'k aitatzten dituen “Aresti'ren milla aurpegi usteka-beak, predikari aspergarri izaletik begiratzten dutenak” kontuan har behar dirala haren kritika egin orduko.

—Aresti'ren personalitatea, handia da. Personalitate arriskutsua eta perilosa, bai berarentzat, bai gainerantzekoentzat. Gainerantzekoentzat, zeren Aresti'ren mintzo ozenak ez du behar hamaika sasi-poeten marmar molerik (Lizardi'rekin gertatu zen bezela). Beretzat, zeren “Harri eta Herri”-ren orijinalitate jatorran gelditzeko perila du. Beldur naiz, ondorengo obrak ezagutuz gero, Bernanos'i eta bertze zenbaiti pasa zitzaiena gertatu dakion. Edo aintzinatu edo hil...

## 5 MIKEL LASA

—Ainitz bider manifestatu dut nere zaletasuna **Mikel Lasa'**rekiko. Nahiz ez azalez, bai ordea funtsez, haren influentziaz kutsuturik aurkitzen dela nere poesiaren zati inportant bat aitortu behar dut.

—**Lasa'**ren muin poetikoa oso berezia da, oso eskuratu-gaitza. Minorientzat egina, dudarik gabe. Bildur naiz Lasa'ren irakurle gehienak haren expresionismoak begiratu batean ikusi arazten dituen zenbait imajin harrigarriak miretsirik gelditu dituzten, eta dena hemen bukatzen dala pensaturik hola utzi eta baztertu dezaten, haren estetika-mundu zorrotz eta sakona somatu gabe. Lasa artista jator bat da, jatorriz da poeta. Lasa'k bere bideari ekin dio, konzesiorik gabe, oportunitismoari amor eman gabe. Puntu hunkarai helduta, beharrezkoa deritzait gogoratu eraztea bera izan zela Aresti'ren gora-bidearen lehen kausitzailea.

—Ongi ulertu du Lasa'k gaurkotasuna ez dala lortzen ideiak eta kezak soilik erabilliaz: idaz-moldeak eta estiloak gaurkoa izan behar du. Ongi ulertu du hori Lasa'k, bai. Eta hunen egiztatzeko haren poetatzen murgiltzea behar da soilik. Orduan dastatu diteke Lasa'ren poesietan nabari dan fraseen erritmu eta bizitasun propial eta autonomoa. Lasa'k ez dio fraseari hedatzen eragozpenik ezartzten,

ez sintaxis-aldetik, ez entelegamendu-aldetik. Uzten dio bere azken-ondorioetaraño hel dedin, bizitasun bortitz batez batzuetan, bizitasun gazi-geza —irudiz aula— batez besteetan, poemaren funts-giroaren arauera beti.

—Lasa expresionista da. Bainan expresionismo hitzak (beste guztiak lez) sentidu berezi batez jabetzen dira haren baitan. Lasa'ren expresionismoaz mintzatzean, ezin diteke ahaztu bere bitalismoa, bere adoleszentzi-mundu ugari eta milla aldekoa, sinzeritate osoz eman diguna.

—Lasa'ren obrak, bere urrian, ez du ematen gai kritika oso eta baliodun bat egiteko. Bainan orain arteinoko obrak ezagutuz gero, asko espero dugu oraindik argitaratu edo burutu ez dituen obretatik.

(Jarraituko du)

# Ionesko eta Teatroa

Joan mari torrealday

Mende honen hasieran, vanguardiazko mogimendu bat nabaitu zan bortizki espirituaren eta giza-egintzaren eremu guztietan. Batez ere 1920 bueltan.

Ezagun da indar-berritze hori filosofian, pinturan, musikan, sikelogian, literaturan. Ikusbide berriak sortu zitzaizkigun orduan, eta, molde zaharrak desegifiarekin, estilo berri bat agertu zan. Mogimendu horrekin, dudarik ez, zorretan dago gaur artea.

Teatroa geratu zan atzeratuena ta ahulena indar-hartze hortan. Batez ere 1930'tik gerora, urte hortantxe lotu-beharra izan baizuan, dio Ionesko'k.

Gudua, erreboluzioa, nazismoa, burgeskeria eta beste tirani-mota guztiak: horra teatroaren aurrerapenaren debekatzailleak. Hoiiek dira ere vanguardiarren betiko etsaiak. Lehen eta orain, hala gertatu da hori beti, 1930'n, ta gaur ere. Halere, vanguardia, baztertua bai, baiña menderatua ez da izan.

Ionesko'k uste du berriz ere bultzada onuragarri bat eman beharrean gaudela teatroaren eboluzioari, eta lan hortan eskuartu nahi luke berak ere: "(teatroaren billakaera horren) langille apalenen artean gura nuke nere burua ikusi".

Aspikoz-gora ta funtsez oker —dio Ionesko'k ausarki— dago egunean teatroa: sikologi motel ta baztertuaz egifia, errexkerikoia, bur-

gesi-prudentzi-zalea, utsezko errealismoz eratua, artistari bildur de-  
zaioketen erako dogmai buru-makur...

Horregatik, krisipean dago teatroa. Bai, dio Ionesko'k, krisisan eta arriskuan dago, ta hau zenbait arrazoigatik, haletaz gainera: teatrogilleak teologi-mota guztietako apostoluak izan ditezela nahi da (ta honekin beren askatasuna galtzen dute) edo ez dezatela eraso ta kontra egin; ez gerizatu, edo hau edo bestea irakastera behartuak daude. Apostolu ala bedel; hau da aukera, ez da besterik.

Hau dana behar du barreiatu vanguardiak.

Esan genuen azkeneko JAKIN'en, nola, Ionesko'ren gardiz, askatasunak eta herritasunak elikatzen duten vanguardia. Iritzi honen arabera, teatro-modu zahartu honen aurka jarri beharko du vanguardialak beti, askatasunaren aldetik: ezin baidezake dogma ta larderiarik onartu; ta herritasuna duelarik lege: edozein kopiatzeari gorroto bizia diolako. Beraz, ez apostolu ta ez bedel.

Ioneskorentzat (nik uste...) teatroa ideologi baten defenditzera doazenak, aitzaki-lekutzat hartzen dute teatroa, beren ideiak gerizatze toki bat. Okerrezko bidetik doaz, aurretiaz baidute holakoek askatasuna kateaturik. Ideia-lapur eta bedel dira kasurik onenean. Behin ere ez artista.

Askatasuna hain goraturik, ideia gabeko teatroa nahi ote luke, ba, Ionesko'k? Ez da horrelakorik. Ezezkoaren argibidetzat, hara hemen bere hitzak: "Egia da, arte-egintza batek ideiak ditu bere baitan; baiña bera bizitza edo bizitzaren adierazpena danez, ideiak heurak sortzen dira handik, eta ez bera ideologiatik".

Ba du berexete honek garrantzia, eta inportantzi hau aisago somatzen dut Ionesko'ren teatroa ikusi ta gero. Zerk gidatu behar du antzelariaren egintza? Ideiak ala bizitzak? Ionesko antiintelektualista da.

Labur: bizitza ez da ideologiaren seme, ta bai alderantziz. Hori probatu nahi du Ionesko'k bere teatroarekin: biziera bat (hapening bat) jartzen du antzokian ta handik salatzen dituzte ideiak parra-parra. Hori da artea. Bestea politika da. Eta artea ta politika: ezkongaitzak ez ezik alkar ukatzaileak ere ba dira. Erruki gabe epaitzen du sasi-ekontza hau Ionesko'k. Gogora diteke nola gogorrean hartu zituan Sartre, Osborne, Arthur Miller ta holakoak, politikarien berriak baiño ematen etzigitela-ta.

Ionesko bera bizitzari egokitua dago, ez ideieri. Esan zuan nola agertzen zitzaion mundua nahi zuala jakin ta horixe adierazi bere subjektibotasunean testigu objetibu bat izanik. Hitz hauen otsari jaramon egifik pentsa diteken arren, ez du Ionesko'k bizieraren fotografia



bat bezela ulertzen teatroa, radiografia bat bezela baiñio. Horregatik, ifioiz irakurri dudan arren, Ionesko ez litzake testigu utsa. Testigu ez-ezik fiskal eta salatari ere ba da.

Bihur nadin pittin bat teatroaren askatasunaren gain. Gaur teatroa arkitzen dan egoeraren gainean, Ionesko'ren hitzak gogorrak dira: "Teatroa kateaturik dago, konbentzionalismu, tabu, arau eta estereotipatutako pentsa-oiuren morrontzapean. Lekurik libreena izan beharrean, irudimen zoroena errege dan tokiaren orde, arau-sistema ertsi bati (arau hoiek egiati ala ez) loturik datza teatroa".

Artea dalako izan behar luke lekurik libreena teatroak. Eta gaur ez da. Ionesko'ren ustez, pentsakizun-askatasunari eta obra etsi ta lazgarriari bildur gelegi diegu. Izen ta "idazkun" ezagun edo ez-ezagunekin, baiña neurri ta arau ustel batzuepean bizi da teatroa. Ez omen da gure itxura-zalekeriaren denuntzi ta saladurarik begi onez ikusten. Baikortasunaren eta itxaropenaren agertzea beharrezko da gaur, eriotza nahi ezpada. Ta ba dakigu: agindutakoak diranean, optimismoa ta itxaropena bera ere ez dira bertute. Hau bateko.

Ta besteko, Akademikeria. Hartarako aitzaki duan bakoitzean adierazten du Ionesko'k Akademizismuari dion gorrotoa. Arauak arau bezela ondo daude, ez da dudarik. Baiña arauaren betiko xedea, ahazturik daukagu, zuzentzea da, ez lotzea. Lotzen badu, zuzentzearren dedilla. Esan beharrik ez dago norma askok, lagundu beharrean, debekatu egin dutela teatroaren eboluzioa. Areago oraindik: teatroan nagusitu diran arauetatik asko ideologi-arauak izan dira. Ta arau hoiek ez dute eskubiderik teatro mugatzeko, naiz ezkerrera naiz eskubi aldera. Berezko ta betiko mugak ba ditu teatroak, ifiorik presatatutakoak harturik gabe ere. Ionesko'k azaldu nahi luke teatro barrutian teatro-arauak bakarrik dutekela indar.

Ionesko'k errotik aldatu nahi luke teatroa. Teknikaren aldetik, bere ustez, gaur arte agindu duten arauak ez duteke aurrerantzean mandaturik. Ezinbestez, neurri bakarra makinariaren posibilidadeetan jartzen du. Beretzat, teatroaren muga bakarra bertako makinariaren ahalasun teknikoak ipifi dezaketena da. Horregatik da teatroa lekurik libreena. Horregatik eta irudimenari libre utzi behar zaiolako, sor dezan. Irudimenak ere berezko legeak ditu, ez kanpotik karreaturikoak. Lege hoiek bai, onartzen ditu Ionesko'k, makinariarenak bezanbat: "Nik neuk, nere irudimenaren legeetatik kanpo bat ere haintzat ez hartzea asmo hartu dut".

Ez da teatroan hirugarren mugarik Ionesko'rentzat..

Ionesko'k nahi du "tortuga bat antzokian ipifi, eta karrera-zaldi

bihurtu, eta gero sonbreru, gero abesti, akorazado, iturriko ur". Hau dena egin diteke ondoen teatroan, baiña hantxe ez da eginen, dio asarraturik-edo.

\* \* \*

Teatroaren berritze onuragarri hau errezki posible bihurtzera etor dedin, Estatu liberal bat dugu beharrezko. Erreztasuna eman behar lioke artistari Estatu horrek. Hontan kopiatzaille ta ideia-lapur da Ionesko: "teatrogillentzat jakintsuentzat bezanbat begirapen eskatzen dut". Laboratorioetan hartu du lezioa. Haietan, edozein asmakuntza edo jakintza-teoria, edatu orduko, preparatu ta entseatu egin ohi da. Hori litzake bidezko teatroan ere. Laboratorio hauek gabe, ez da errez askatasunean irautea. Obra bat "komertziala", "herrikoia" ezpaldin bada, produzitzailleetatik nork hartuko du? Herria, produzitzaillea, zensura: hoek eta beste asko zaizkio anitzetan katibugille arteari. Teatroari.

Danok dakigu nolako desberdintasuna izan dezakean, artearen onerako, artearen amoreakgatik teatroa egiteak eta, aldiz, saltzeko asmoz egiteak. Lenengokoak behar ditugu ugariago gaur, benetasuna galdu ez dezan arteak, eta sortzaille, kreatorzaille (hau da: "egiazko") bihur dedin.

"Artezko" teatro horri saltzailleak eta ikusleak uste dut gudu bortxatua egingo diotela, ez talako ez ikusterreza ez salerreza. Ba, horregatixe dira beharrezkoago Ionesko'k proposatzen dituan klub eta sala hoiak, ("laboratorioak"). Vanguardiaiko teatroarentzat baitipait. Eta klasikoarentzat ere, (aisa ikusten eta ulertzen ote du, ba, teatro klasikoa herri xeheak?). Klub hoietara joango lirake artezaleak, ikasiak, hartaratuak. Eskola polita litzake, ta arte askoren salbabidea. Salbabidea eta zabalbidea, nik uste.

\* \* \*

*Ionesko'k ez lioke, Goethe'k bezela, behin ere galdetuko publikoari zer litzaken bera (teatrogillea) publikoa gabe. Ionesko ezpailitzake ikusterik ez eukitzeagatik ixilduko, ez mutu bihurtuko horregatik. "Publiko-jenderik gabe ere ulertzen dut teatroa", deklaritzen du.*

*Teatrogintza espirituairen esijentziari ta tiramenari dagokio, eta, ho-*

rregatik, jendea dagola edo ez, berdin egin diteke, egin behar da. Arbola bat arbola da, ta ez du nere baimenaren beharizanik hortarako. Jendeak egin dezakena zera da, alegia, joan, eta zudtz hori, bai, arbola dala ikusi, ez besterik. Halaxe ere teatroarekin, dio Ionesko'k: teatroa ere teatroa da, berez da hala. Publikoak, etorri ta haintzat hartuko du, arbolarari arbola izena eman dion bezelaxe.

Bego, ba, hortan: teatroa, Ionesko'ren gardiz, espirituaren eskabide bat da, gaiñera bere baitan beretasuna ta izana ba duena. Herriarentzako ez da, hortaz?

Itxuraz ta axalkiro juzgatzea litzake espirituaren eskabide ta esijentzia dala-ta, hagatixe ez dala herrikoia pentsatzea. Oposizio honek ez du hemen zeregiñik. Ba luke "herrikoi" ta "errex" gauza bat bera balira. Ez diran artean ordea, jakin egin behar da zer adierazi nahi dan esaten danean teatroa, berez, beti dala publikoarentzat egiña, ta batez ere jende arrunt ta apalentzat.

Bai, eta ez, esan dezakegu:

Honekin, teatro errex (irakur: errexkeriazkoa), adimen txepelentzat egiña, onuratsua (?), demagogi-zalea, politika baten tresna, edozein pentsaeraren berritze uts ta konformista, zaindaritzapekoa... esan nahi baldin bada: ez! Herriaren benetako maitasun sakonak nekez sorrerazi dezake holako teatroa. Txaloaren guraria edo diru-miña aitatatzat begiratzea bi-dezkoago litzaigukela pentsatzen dut.

Bai, oster, zera adierazi nahi bada: teatroa izatez eta helburuz herrikoi dala, herriarentzako egiña eta herriaren arazoekin eratua. Hau da zuzena. Sentidu honetan, bai, teatroa (edozein arte) jende xehearentzat da.

Baiña, herrikoi izatea eta herriak hasiera batetik teatro hori ulertzea, bi gauza dira. Ez dut dudarik: Ionesko'ren teatroa ez du edozeiñek ulertzen, baiña Ionesko'ren teatroa herrikoia da. Herrikoia da han azaltzen eta mamitzen dan gizonaren neurria, hango gizakumearen amets-beharra eta materiaren indar itsua, gizon guztion eguneroko bizitzaren bizigaiak diralako. Gizarteko egitura, bizi-molde ta kastatza guztien gaiñetik hor elkartzen eta antzekotzen gera guztiok, horregatik da gizartekoa, herrikoia.

Euskaltzaindiaren azken bilkuran, maietzaren 26-an, ontzat artu izan zen Eusebio Erkiaga euskaltzaiñak aurkeztu zuen txosten au zabakdua izan zedin gure aldizkarietara, euskeraren sustraikako jatorrasunaren alde.

euskal aldizkarien zuzentzailleei eskaria, idazle batzuen zabarkeriz

## *EUSKALTZAINDIAREN DEIA*

Euskaltzaleen arteko eztabaida batzuek, ezagunean ematu ta atzendu dirala, dirudi. Alegia, euskal-itzei buruzko eztabaidak. Euskal-itz zaharrak, gure iturburuak; euskaldundutako itz aspal-dikoak; itz sorberriak, zera, neologismu bildurgarri hoiek; eta azkenez, beste izkuntzetarik, maiz eta sarri, batere premia gabe, bolara hontan, nabarmen eta erruz artzen ditugun itzak.

Zeintzuk erabilli behar ote ditugu? Jakiña, esangura egokia duten itzak, gureak baldin baditugu, besteren alorretikakoak gusto zabarez erabiltea, ez dirudi bidezkoa. Halaere, gazteek geienbat, erdal-iturri zale amorratu agertzen zaizkigu. Dakizutenez, ugoldean dakarzkite erdal-itzok idazlanetara. Maiz, gureak bazterturik eta iñoiz, zentzu ez egokia ta ez ohitua ezarririk, eta gure izkeran, euskaldun jatorrentzat, halako arrozkerata euskal-gaiztoa sortuarazirik.

Beti entzun izan duguna da hauxe: zera, euskerak iguin duala itza "r" soillez asteko. Eta lehendik, aldakuntza geigarriak egin izan ditu: Erroma, Erremon, erretolika, erremu, errebida, errespetu, errota, erloju, erligiño, errifa. Eta orain, orde; rebel-dia, relativu, redentore, relazio, eta abar hor dabiltz lasai eta arro. Beste zenbait itz, gaztelaniaz "o" dutenak bukaeran, batzuetan, "u" izan ohi dute azkentzat: mediku, erloju, erregu, errespetu, errei-ñu, artikulua, azentu. Itz hoiek eta antzekoak, nola genituke jatorrago?

Halaere, lexiku arlo hori baiño ere arrisku andiagokotzat

dugu, aspaldion gazteek itzurrenean darabilten aldrebeskeria. Ta hortaz gaiñera, eta *batez ere*, euskal-aditz formak aldatzean eta atzizkiei buruz, errespeturik gabe jokatzean. Ez ahal zenduten irakurri Urliaren artikulua doakabea, euskal-atzizkien kaltez? Duana ere, galdu egin behar ote du euskerak?

Ergatiku atzizkiaren beharrianik eta “-n” atzizkiarenik ere ezpaidute erdal-izkeraz bizi diranek, letra hoiek ere, arriskuan bizi dira. Eta zer esan vokativu gizarajoari buruz? Laster garbituko du, noski, dativu zoroak: “buruan jo dio” entzun ezezik, idatzi ere, askok egiten baitute gaur.

Baiña, hontaz oiu egin nahi dugu oraingoan. Zera, euskal-aldizkarienez zuzentzaileek berarizko arreta izan dezatela, euskal-aditzaren formak zaintzeko eta batasun bidera apurka apurka erakartzeko. Artzen dituzten artikuluetan eta albistetan, zergatik ez egin, argitara baiño lehen, txit premiazko diran aldakuntza tipiak?

Eta beste zer batzuetan, nabarmen, baldintzazko ustekizun formak, zera, potentzial supositivu diralakoak, ez ditugu behar bezela zaintzen. Eta hor dabiltz, zabarkeriaz jantzita: “banintzake, balitzake, banuke, bagenduke, bagiñake...” eta abar. Zergatik ez “banintz, balitz, banu, bagendu, bagiña”?

Are geiago; beste forma hoiek ere: “bagenezakegu”, “bazeenezakezu” eta abar. Jaunok, ez ote da aski eta zuzen “bageeza”, “bazeenza” eta hola? Izkerari, berez duan muin eta indarra kendu nahi ote diogu?

Atzizkiei buruzko ixtudioa egitea ere komeni izango litzake, gaurko aldrebeskeriak ikusirik. Esaterako, “zure etxetik joango naiz” —zuenera joango naiz, edota etxera joango natzaizu esan ohi genduan guk, gure gurasoek bezela. “Goizetik, arratsaldetik” —goizean, arratsaldean esan beharrean.

Euskalpentsabidetik atera bagaite eta erdal-pentsabidean zear abiatu, euskerak ez du izango, gure ustez, duan indar eta esan-gurarik.

Labur: itzurrena zaitu behar dugu, joskera arauak eta atzizkiak orobat, eta aditzaren formak. Osterontzean izkeraren indarra, izakera, moteldu, illundu, ta nahasmendu biurtuko dugu. Eta jakiña, konpreni eziña ditekean izkera ez du iñortxok ere ezer-tarako nahi izanen.

*Eusebio Erkiaga,  
Euskaltzaiñak*

# Bizitzaren hasiera

Neronen saiotoxo hau hasi baiño lehen zor bat kitatu beharrez nago eta izan bediz eskerrezko hitz hauek, Zientziaren bidez, fedea bihurtu eta sifistea indartu egin zidan Teilhard de Chardin'entzat.

Gizon eta jesuita argia bera, biologilari fina eta zientzist ohi ez bezalakoa.

Aurreko "Jakin" batean, Zubizarreta idazle bikaiñak, zelula eta bizitzazaz artikulu eder bat egin zuen. Asko gustatu zitzaidan Biologia Euskeraz ikustea, txikitatik naturalezazale itzala bainaiz. Berak bultz egin nau ni hontaz idaztera eta nolabait berari zor zaika nik neuk egindako lerradi hau.

xabier kintana

Biologi jatorrak, bizia zelulagan datzala esan digu (zelula-hitz kontuan kelula edo gelula hobeki legokezala pentsatzen dut baiña hotsik ez egitearren zez idazten dut nik ere).

Egia da baiña, zelula baiño apalago, xume eta xeheago diran beste mikroorganismuak dirala: Bakteriak eta birusak, bizidunak izan arren zelulatasunik agertzen ez dutenak.

Ta birusak baiño lehenago zertzuk dagoz? Noiz eta nun hasten da bizia? Baiña geldi gaitezaz apur batez eta pentsa dezagun, zer da bizia? nola? zela ezagutzen dugu?

Eta berton hasten zaizkigu oztopoak. Ezin esan dugu seguran-tzaz bizia zer dan. Bizia bizidunengan topatzen dugu eta berauek nolakoak diran azaldu bai, baiña bizia, berez, zer dan ezin azal dugu.

Niretzat hori ez da bidea. Hatserako gauza batzuei bizidun eta beste batzuei hillak esaten diegu. Biziengan hillek ez duten zenbait propiedade aurkitzen dugu baiña bizia ez da propiedade guzti hauek osotzen dutena. Gaiñera bizidun guztiengan ez dira propiedade berdiñak azaltzen, txit argiro behintzat.

Xixtima baterako, bizidunen ezaugarriak hirurok lirake: jatea, hartu emanetan egotea eta ugaltzea.

Janaz bizidunek beren burua alimentatzen dute.

Hartu emanen bidez giroaz eta ondokoez konturatzen dira.

Ugaltzearen bidez beren antzeko bizidunak sortzen dituzte.

Hiru karakteristika hauek badute elkarrekin zer ikusi. Jana, eta ugaltzea bizidun nagusi guztietarako, hartu emanen bidezkoa da, beraren azpian dagoz beste biak nolabait.

Izan ere, bizidun batek, jan ahal izateko, girotik, ingurutik hartu behar du jakia eta horretarako hartu emanetan hasi behar da. Ugaltzeko ere ernaritzea da beharrezko bizidun nagusiengan eta ernaritzeak hartu emana eskatzen du aurreik.

Ugaltzea bera, gehienetan, janaldi larregien ondorena da. Bizidun batek gorpuzkera handi bat eukitean zatitzen du bere burua, beste baten laguntasunaz sarri, eta beraren antzeko bizidun kume bat sortu.

Teilhard'ek ba du bizitzazaz teori interesgarri eta mamizko bat.

Berarentzat materi guztia bizia da. Kasu batzuetan bizi hori elementala eta apala izan leike eta beste batzuetan agiriago eta nagusiago, baiña izan dan dana dugu bizidun.

Bizidunik osoena eta perfekziotsuena, organuz egina da, organuak zelulaz osotuak, zelulak protein, karbonoki eta lipidoz, hauek molekula nagusi batzuk dira, molekula nagusi hauek beste molekula

bakunagoz sortuak dira, eta molekula arrez hauek atomoz egiflak ditugu.

Atomoak haiek ere ez dira materizko zatirik txikerrenak, heien gan ba dira oindio beste atal txikerrago batzuek. Atal hauek protoiak, neutroiak, fotoiak, positroiak, mesoiak, hiperoiak eta neutrinoak dira, egungo zientziak dioskunez. Ta txatalok zerezkoak dira? zerez egiflak?

Hemen materiaren txikitasun eta gaiztasuna itzala da, eta berdintasuna harrigarria. Gorputz eta bizidun guztien elektroiak, eta atomokiak berdin berdiflak dira, harri bat eta gizon bat atomokisko elkartzeak dira, bata ximplea bestea gaitzago, hala ere biongan dagoz material berdiflak.

Jakintzak laister billatuko bide ditu materizko zatirik txikerrenak. Zati hauek indarrezkoak edo tximistasun enerjizkoak izango dira eta berauek nola batu eta elkartu eta protoiak, elektroiak eta beste atomokiak halaxerik sortu eta osotu. Materiaren gaia, ezezagun zaikun indar edo energi hori berdin berdifla izango litzake gauza guztietan.

Izadi osoaren itxurazko ezberdintasuna azalezkoa litzake orduan, barnean zati berdin berdifnez osotua bailitzake. Amaibakoa eta guztiz zabala izango litzake bada materia.

Indar edo energi hori askaturik zegoan noizbait garaien hatsean ta denboraz eragiten hasi zan.

Urrengoa ondoen aditzeko dei egin dezaiegun "monada" materizko zatirik txikerrenei. Izadi guztia beraz, monadaz egifla litzake.

Monadak enerjizkoak dira, gorpuzkerarik ere ez dute, oraingoz ezezagunak ditugu eta ezin aldera genetzake ifiolako izakiaz. Monadak propiedade bi daukate; bat bakarrik hobeki esan baifla bikoitza: Hartu emanetarako gaitasuna. Berdiflak diran zatiak elkarrekiko kidetasun eta eragikortasuna daukate Izadian.

Monadak, indarrezkoak, enerjizkoak izanaz, elkarrerri eragiten diote eta elkartu egiten dira, banaka, biflaka...xnaka, eta hola elektroiak, fotoiak eta beste atomokiak osotu.

Elektroiak, protoiak eta beste txatal guztiak ere hartu emanetan dagoz eta elkartu egiten dira beste oso nagusiago batzuk sortu erazteko. Protoi bat nukleotzat eta elektroii bat orbitan eta hidrogenoaren atomoa sortua dugu. Beste konbinazioz beste gorputz guztien atomoak sortzen zaizkigu.

Gorputzen atomoak sortzeko garai luzea igaro zan, milloi batzuk milloi urte noski, prozesu hau artiroa eta betazkoa izango zan noski baifla indarraren elkar eragifnez pittinka pittinka elkartasunak agertzen hasi ziran zihurki.



Izadiaren zabale haundian atomoak askatasun guztiaz zegozan. Elkarrerri eragifiaz batu eta pillatu egiten ziran. Lehenbiziko atoma-  
diak sortu ziran, hau da molekulak.

Molekulak bakunak eta erraxak izango zirakean hatsean. Baiña gero ta haundiagoak lotu. Polimeroak egin ziran molekulazko elkar-  
tzeetatik. Zelulosa, glukosa, laktosa, sakarosa, almidoia... guztiok hidrogeno, oxigeno eta karbonoaren atomoekin sortzen zaizkigu. Ma-  
terial gitxi, baiña estruktur gaitz eta korapillatua.

Ta polimeroen kateak gaitzagotzen zijoazan. Azido nukleikoak hemoglobina, klorofilla... Nitrogenoa, burdifta, magnesioa eta beste metal eta ezmetalak sartzen dira molekula ikaragarri hauetan. Elek-  
tronikazko makifiatxo txikiok gero eta gaitasun gehiago agertzen di-  
gute beren egiteetan.

Une batez, molekula gaitz eta luze batek mirari bat egin zuen. Ondoko gai eta molekulei eragin, berauen atomo eta molekula-kateak beraren antzeko estruktur berri bat egin zeitezan.

Benetako erdibitzerik ez dago oindio. Birusek ez dute erdibitzea lortu. Bera errobot bat dugu, beragan itxia. Ezin du kumerik ukan. Hala ere materiala topatu eta moldatzen du beraren antzekoak sortzeko.

Ta aurrerakuntza urrutira doa. Bakteriak birusak baiña egokia-  
goak dira eta aurreratze hau handitasunean daroate. Bakteriak ez dio alboko molekulari eragiten kumerik sortzeko. Bera erdibitu egiten da zati berdifiaz eta zati bakoitzetik bizidun berri bana atara. Materialak barruan, bere gorputzean moldatzen eta bakteritzen ditu, ez atean birusak bezala.

Birusak ez zuen airerik herre behar bizitzeko. Indarra eta energia molekulazko erreazionetatik ateraten zuen bere energi galtzeak ber-  
ritzeko.

Bakteri askok ere berdin egingo dute, baiña beste batzuek aireaz egin beharko dituzte beren erreakzioak, oxigeno herreaz, haletatik indarra eta beroa hartzeko. Espezializatzea da guztien salbabidea. Bak-  
terei batek burdifta oxigenatuaz lortuko du energia; beste batek su-  
frezko ur hatsetan, beste batek polimeroak despolimeratuaz, eta aunitz beste bakteriei gerla eta burruka egifiaz beren organikotasuna iristeko.

Mikromundua beraz atomo eta molekula talde gaitzen gudu mun-  
dua da. Organikotasunak energia nahi du eta behar ere, bizi ahal izateko. Energi galtzeak irabazten ezpadira atzerakuntza dator, dese-  
gitea, estrukturen erorte izugarria.

Bizidunen mundu honetara ez dira heldu atomo asko. Gehienak haitz, ta meatz hotz bihurturik zaizkigu. Kimika erraxa dute eta es-

truktur xumea. Mendiak eta arrokak hortxe dagoz, zorigaitzoko probabilitate antzuen erakutsizat. Metalak, ezmetalak talde ugari eta bakarretan alkartuak dira. Bizitzak askotarikoen batzea eta ordena behar du. Metalak, meatzak ez dira bide horretatik ibilliak; erre-gazgo izanaz gogorturik datzaz beren itxuratasun handiosean.

Baifia biziak bide zabalagoak nahi ditu. Molekulean artean ba-dago bat eguzkitiko argiari eskerrak meatz eta organikotasun ba-gako molekuletatik organikotasuna egiten dakiena. Klorofilla deritza.

Klorofilla (jloros=berde; fila=zale, gerkeraz) gai berdexka bat da. Bere molekula magnesioduna da. Honeri eskerrak bizidun askok lasaiago lortuko zutekean enerjia.

Eguzkiak ematen zien argiaz meatza organikatzen zuen kloro-fillak. Ez zan bada lehen lez, ondokoekin burrukan eta gerlan ibilli behar.

Bakteriren batek, mutatzez edo, hartuko zuen edo sortuko kloro-filla eta gero haien ondokoei, erditzean emon. Zana zala, klorofilla topatzea ikaragarritzko pauso bat izan zan bizitza arloan.

Orduko klorofildunen berri ez dakigu egun. Hala ere ba dugu gure artean haien kide bat: Euglena. Berau animalizat hartu leiteke eta baita landareztat ere. Animaliak bezala badabil ille luze bateri esker eta landareak lez ba du klorofila. Orduko euglenak uretan ugar hari izango ziran, aurki. Baifia espezializatzea arin etorri zitzairen haiei ere. Klorofildun bizidunen artean bitzuk berezi ziran.

Batzuek klorofilla utzi egin zuten eta higidurari oratu. Beraue-tatik animalia edo abereak sortu ziran.

Besteek, ordea, klorofilla gorde zuten eta higidura eta ibilteko gaitasuna galdu. Haiek landareen iturburuak zirakean.

Honetara landareak eta animaliak bereziak ziran!


Ta aurrerago joan baifio lehen begira dezagun atzera.

Han elektroif eta atomoak geratu dira, eta molekulak ere bai. Baifia ez ezertan aldatu bage.

Simetritz eta kideasun errezaz kristalak, meatzak, metalak, hai-tzak eta mundu gogor eta arnas bagekoa egin dute. Aurreraldakun-tza bide eskasetik joan da, alborako bidetik, ez goranzko bide argitik.

Ta bizitza ba dakio garaiari.

Klorofil bako zelulak agertzen dira: Protozoak. Lehenbiziko ani-maliak. Animalia hauek zelula bakarrekoak dira. Batzuk abarketa illetsu baten antzekoak dira (paramezioak), beste batzuk itxura ba-gako masa taiuz (amebak), kanpaitxo tankerakoak (bortizelak) eta beste asko agertzen dira erreifio hontan.



# ALDAKUN PA

Landareen artean algak erakusten dira. Zelula bakardun eta askodunak. Alga nagusiengan baiña nahaspillarik ez dago, dana da erraza: zelula berdin asko oso bategan dagoz, besterik ez.

Klorofillari esker eguzkitik ataritzen dute jana, meatza organikatu egiten baitute algak. Egun ere alga asko topa daitezke erreka itsasoko uretan: Diatomeak, espirogira, fukusak, Bolboxak, klorokokusak eta abar.

Bizitzaren estrukturak molde nagusiago eta hobeak hartu ditu.



ARRAK



ZAREN

SOAK

Bakteriek eta birusek ez zuten zati nagusi ez agintaririk. Haiengan zati guztiak nahaspil batean zegozan. Molekulazko batze gaitz bat besterik ez ziran. Orain osteraz zelulak ditugu. Zelulenagan zati nagusi bat dago: nukleoa. Beronetan agintaritzea datza, zelula osoaren zatien hartu emonen begiratzaille eta gobernatzaillea baita.

Zelularen handitasuna itzala da birus bakterien ondoan. Gorpuzkera guztia zuzen eta berdintasunean jagoteko nahiz ta nahiezkoan bada nukleoa edo agintari bat. Nukleoa ere ugaritasunerako in-

darra egongo da.

Ta aurreraldakuntza joaten hari zan. Protozoengandik zelentereok atara ziran: itsas hasuifiak, itsaslorreak, hidrak... eta baita ekinodermoak: itsas izar eta lakatzak, ofiurak, holoturiak...

Algengandik goroldioak sortu ziran eta beronengandik irak edo garoak. Landareen arloak desertore batzuk ikusi zituen: perretxiko eta ondoak. Berauek klorofilla utzi egin zuten eta abereen pare materia organikatik hasi ziran elikatzen.

Zelentereok harrak sortu zituzten, eta moluskoak ere bai. Harren artean oso ezagunak ditugu izaifia, lur-harra, zizareak, teniak... ta moluskoetarik bareak, barraskilloak, txirlak, olagarroak...

Irak edo garoen atzetik Gimnospermak (piñuak), belarrak (monokotiledoneak) eta azkenez zuhaitzak (Bikotiledoneak).

Harrak krustazeoen gurasoak izango ziran eta berauek araknidak eta intsektak sortuko zituen. Krustazeo ezagunak karramarroak eta txangurruak dira, lupuak eta armiarmaak araknidak eta intsekten artetik erlea, kakarraldoa, otia, kilkirra, sita, eulia...

Harrak hezurdunen sortzailleak izango ziran baita ere.

Itsas bazterretan ba dago arrain antzeko animali bat: anfioxusa. Berau argi eta gardena da ta hezurrik ezpazu ere bizkarrean kartilago bat du, hezurgai.

Anfioxus honegandik arraifiak etorri ziran.

Millataz urte geroago, arrain batzuk ibiltzen hasi ziran hegalak ankatzat harturik. Aire-puxigak birikatzen zerabillaten. Honela ur-lurtarrak ageri zitzaizkigun: igelak, arrubiak, apoak, apotxaliak...

Urlurtar batzuei azala gogortu egin zitzaizen eta ezkatatzen jantzi arraifien erara. Narrastiak sortu ziran! Harezkeroko mundu honetan muskerrek, sugeak, kokodrilloak, eta apo harmatuak ibilli ziran.

Hegaztiak narrastiengandik heldu dira. Nork esango zukean txori bat musker bategandik etorri zeitekeanik? Eta hala ere egia da. Belgikako harriola batean arkeopterix izeneko hegazti zahar baten hezurak topatu ziran. Hegazti hark hagiak eta hegal erpadunak zituen, muskerren antzera. Lumak ere bai ta buztan ezkatadunak. Ikaragarritzko hegaztia, baiña hegazti benetakoa. Izadiak egin zuen lehenbizikoa, traukil eta latza baiña lehenbiziko entseiturako nahiko azkarra.

Ta eboluzio edo aurreraldakuntzaren azkenerako ugazdunak lotzen zaizkigu. Ta hauek mundikoak ditugu? Hobeki esan, pertsonok ugazdunak izanik, zein da geure etorrera?

Narrastiengandik hegaztienganako bidean ba ziran zenbait animalia egun erras galdurik dagozanak. Haietatik gaur Australian bizi diran monotremak eta martsupialak sortuko bide ziran.

Monotremak ugazdunik zaharrenak dira. Hegaztien modura badute moko bat. Arraultzak ere egiten dituzte kumeak sortzeko. Illea baiña ba dute eta esnea ixuri ere bai. Ezagunena Ornitorrinkoa da.

Martsupialek boltsa bat daroate sabelean, emeek, kume txikierak jagoteko. Izan ere gordeleku hau beharrezkoa dute, egiten dituzten kumetxoak fetotxikitxoak izanik. Kangurokumeak, esate baterako hiru zentimetrokoak dira jaiotean, atara kontu kanguro nagusiak larogei kilokoak diralarik!

Ta martsupialengandik beste guztiak egin dira. Gizonok ere bai.

Orain dala garai handia tximio itxurako batzuegandik sortu zan lehenbiziko gizona. Beraz ez da egia gizona tximioagandik datorrela, bai ordea, tximioa eta gizona iturri berdifekoak gerala.

Bide luzea hasikeratik honaiflokoa. Garaia igaro da eta aurrealdakuntza ere bai. Guk bidearen azkenetik lehenaldia dakusagu urrun urrundik, baiña egia esateko bakoitzak garai guztia pasa du. Baiña hau urrengo lanerako gai interesgarria izan daiteke.

# SOZIALISMOA

## MODAN DAGO

- euskal belaun berria konformagaitza
- sozialismoak euskaltzaletasunean
- marxismoaren sarrera euskaltzaletasunean
- marxismoarekiko posturak
- katolikoak eta...
- sozialismoa zer da?

Estraiña, lan hau idaztea pentsakizun bat besterik ez zenean, "MARXISMOA modan dago" izenburuarekin argitaratzeko asmoa nuen. Lana finkatzean, ordea, egokiago iruditu zitzaidan "marxismo" itzaren orde zozialismo itza jartzea, esanahi zabalagoa baidu sozialismoak marxismoak baiño. Marxista den guztia da sozialista, kontrakoa ordea, ez da beharrezkoa. Ala ere, gaurkoz, sozialismoa ezin diteke aditu bere osotasunean, historiaren barruan gertatu danez esan nahi dut, marxismoari referentziarik egin gabe. Honegatik, izenburuan sozialismoaren izena jarri baldin badut ere, gehienetan marxismoatzaz mintzatuko naiz.

rikardo arregi

## EUSKAL BELAUN BERRIA KONFORMAGAITZA

1960-gn. urte inguruan azaltzen da euskal arazoetara belaun berri bat. Urte hori ezkeroztik, behar bada pixka bat lehentxoagotik, euskal adimena ta euskal sentipena berritu egiten da, bere baitan zartada bat sentitzen du ta ordu ezkeroztik gertaera hau, belaun berri baten esnatzea, kontuan artu gabe ez dago aztertzerik ez euskal kultura, ez euskal politika, ezta ere euskaldunen artean dabiltzan ideialogiak. Hau da azken amar urteetako gertaerarik bortitzena. Gure histori gertuenaren azalpenik ikusgarriena. Honekin ez dut juizio bat egin nahi, frogatua dagoen gertaera bat aitatu baizik.

Belaun hau rebeldea, konformagaitza ta radikala izango da. Bere jatorria ikusirik, ezin zitekean bestela izan. Euskal arazoak lo-giroan zeuden, iraute utsean. Betiko topikoak ziran oifarrri ta bide. Behar bada ezin zitekean besterik egin. Egoitza hori ez zen kasikan euskaltzaileen errua; behar bada hauek ez zuten ainbeste ta ain azkar etsi behar ta besteengandik salbazioaren zai gelditu. Baiña nor gera gu hori aztertzeko ta neurtzeko? Ez ditzagun, beraz, lehengo belau-naren gain juizioak egin.

Euskal arazoen giro hortan sortu zen belaun berriaren euskal kontzientziratzea. Esnatze ta kontzientziratze garratza, euskal gauzen egoitza nolakoa zen ikusirik, gazteen reakzioa bestelakoa ezin zitekealako izan. Behar bada, segurantza osoan obetoago, danak —zahar-rak eta gazteak— zuten garraztasunaren kontzientzia, baiña gazteen-gan beti reakzioa gogorra izaten dela diote.

Honelako unetan eta honelako gertaeretan gertatu oi den guztia ere gertatu da euskal belaun gaztearen kasuan. Belaun hau rebeldea ta konformagaitza dela esan dugu. Hortan arkitzen da euskal belaun gazte honen lehendabiziko epe, etapa, mailla batean izango duen zera: topikoak desegin beharra. Euskaldungoatzaz kontzientziratze-koan esnatze garratz batekin arkitzen dela esan dugu. Kanpoko zir-kunstantziak baztertuaz —hoiek kontuan artzea beste estudio baterako gaia litzakelako—, euskal arazoen gaitza euskal pentsamentuaren eskolatizismoan zegoen. Eskolatizismoa esaterakoan, hau adierazi nahi dut: repetizio bat besterik ez zela. Gauzak, arazoak, prolemak berpentsatu beharrean, berresan. Betiko topikoetan sifistatzen jarraitu.

Bestaldetik, esnatze garratzak, pentsamentuari dagokionez, beste ondoren bat dakarki. Esnatze garratza izan zela esan dugu, eriotza gero ta gertuago konturatzen danaren esnatzea baida. Garraztasu-nak belaun hontako gaztea burrukalaria egiten du, asmoetan beife-



pein. Orduan galdera bat eta gertakizun bat azaltzen zaizkio. Galdera hau da: zergatik ez da burrukalaria euskaltzaletasuna? Ta euskal gazteak erantzun hau emango du: burgesa ta konserbadorea delako. Gertakizuna, berriz, hau da: gaurko gure gizartean burrukalarienak langilleak dira edo, obeto esateko, langillerik gabe ez dago burruka egiterik, batez ere industrializatutako gizartea den EUSKALERRIA-n ez dago ezer egiterik sozialarik gabe.

Galdera edo erantzun hortatik eta konstatazio hortatik jaioko dira urte hauetako euskal belaun gaztediaren pentsamentuaren bi ezaugarri aundienak: radikaltasuna ta sozialismoa.

Euskal pentsamentua burgestua ta eskolastikatua zegoela esan dugu, topikoetan finkatua. Hori ez onartzerakoan, topikoak desegitea, historiaren iturrietara joatea, euskal historia ta euskal arazoak asiera asieratik eta uts utsetik estudiatu ta pentsatu beharra azalduko da. Hortan egongo da radikal izatea, uts utsetik berrito iturrietara joate hortan, euskal historia berrito pentsatze hortan. Esaten ari naizena garbiegi dago gazteen euskal literaturan.

Bestetik, radikaltasunaz gañera, euskal belaun gaztearen ezaugarri sozialismoa dela esan dugu. Baiñan euskaltzale gaztediaren sozialistatze hau ez da epe ta une batean egin, ezta ere neurri ta era berdinean gertatu. Horregatik, lan honen barruan gauza bortitza delako hau, dibisio, banaketa ta astrazio batzuek egin beharrean arkituko gera. Aurrez aurre diogu, bada, gauzak ez dirala erabat honela, gehienetan bere bizian nahastuta arkitzen direla, baiña estudioa egiteko zerbait bakandu egin behar ditugula.

## **SOZIALISMOAK EUSKALTZALETASUNEAN**

Euskaltzaletasunaren eta sozialismoaren artean, asieratik, adiskidetasuna egon beharrean burruka ixilla, etsaigoa ez zanean, zegoen. Biak, euskaltzaletasuna ta sozialismoa, presuna berdinean arkitzea zaila zela esan nahi dut, ta ez euskaltzaleak adiskide sozialistak, ta aldrebes, ez zituztenik. Ta biak bat egiteko asierako saiaketak ez dira jatorrak izan. Esplikatuko naiz.

Nere ustean, lehenago aitatzen genduen radikaltasun honek eman du bere fruitua, euskal arazoaren eta prolemaren soluzioak euskal **gizon osoaren** soluzioa izan behar duela konturatzerakoan. Baiña, eta ezin zitekean bestela izan, taktikak aurrea artu dio dotriñari. Hori da, euskaltzaletasuna ta sozialismoaren elkartzea asiera batean jatorra ez zela izan esandakoan, adierazi nahi nuena. Radikaltasunak

eta burruka egin beharrak azkar ikustarazi zuen langilleak eta soziala ezin zitezkeala baztertu. Ta hortan zegoen jatortasunik eza, hoietan zegoen indarra beste zerbaiteko aprobetxatu nahi izatean, langilletasuna, proletariutza, beste xede batzuetara subordinatzean. Beraz, ez zegoen prolemaren bi datoen artean —euskaltzaleatasuna ta sozialismoa— asiera batean eta gerotxoan ere batasunik, batabestea-  
renganako menperatasuna baizik. Gaur eguneko euskal pentsamenduaren zenbait prolema ta zenbait kontradizio hortantxe daude.

Euskaltzaleen artean, euskal belaun gaztearen artean esan nahi dut, sozialismoa planteatu zanean, lehendabizi **sozialismo esenzialista** bat bezela planteatu zen.

Ba da gauza bat beste ezer baiño lehenago esan behar dana. Makifia bat aldiz esan da aurreko lerroetan euskal belaun gaztea burrukalaria dela. Horregatik, sozialismoa dela-ta azalduko diran gora-behera guztietan, ez da beifere azalduko sozial-demokraziaren tentazioa. Gehienez tentazio hori teknokrata joera zutenak eta Europa-ren eskapismoan sifisten zutenak izan dute. Gaifontzeko guztietan, postura radikalak dituzten guztiak bezela, euskaltzale gazteak beti ezkerretik ibilli dira; ezin zitekean sozialismoa onartu nahi izatera-koan sozial-demokrazian erori. Geroago hontaz ere mintzatuko gera, baiña baita ere esan behar dugu, euskaltzaleen artean sozialismoan sartu dan euskal gaztedia, belaun bezela, ez dela komunismo ortodoxora joan, bakan batzuek hori egin baldin badute ere.

Beraz, lehengoa jarraituaz, lehendabizi sozialismo itza ta nahia sartu zanean, sozialismo esenzialista bezela izan zela esan dut. Euskaltzale sozialismoaren histori-aurrea zela esan diteke, oraindikan benetako sozialismoarekin enfrentatu gabekoa. Asiera batean, gutxi gora bera, honela planteatzen ziran gauzak: sozialismoa euskal izakerari dagokion zerbaite da, euskal historiak dio euskaldunaren benetako izaera sozialista dela. Horregatik da esenzialista joera hau, euskal animaren, euskal historiaren, esentzi batean sifisten duelako, euskaldunak **berez** honelakoak edo bestelakoak balira bezela. Hau aurrera ta atzera egitea da une berdinean. Aurrera egitea, lehengo euskaltzaleak uste zutena, euskaldunak **berez** demokrata izaera zuela zelako, ta orain berriz, sozialismoa dela; ta bigarrena sifistea lehendabizikoaren orde zurrerapen bat da. Atzera egitea, berriz, denbora pasian oraindikan esenzialista postu-  
retan jarraitzeagatik. Euskal izaera berez demokrata edo sozialista dela uste duten guztiak hau uste dute gutxi gora behera: Euskal-erria-ren gaitzak ez dira euskaldunen errua, besteak egin dute txarra Euskal-erri-ko gizartea.

beraz euskaldunak berak bakarrik utzi ezkeror —hauek onak dira-ta—, bere gizarteko gaitz guztiak bat batean konponduko lirake. Ez dago esan beharrik eta guri urbillegi dagoen euskal historiak hori adierazten digu, zenbateraino dauden itsatsita faszista joerak honelako postura batean. Izan ere, honelako sozialistak ez dute batere zeazten zer sozialismotzaz mintzatzen ari diran. Justizia, kolektibidadearen agintea ta horrelako zerbait, baiñan ezer asko ez.

Era guztietara, etapa hau ba da denbora apur bat gaitzekatua, superatua, izan zela. Oraindikan, ordea, bere apurrak erabat zabalduak dabilta gure giroan eta batez ere esenzialista joera hori gure pentsamentuan sakonegi itsatsita dago, ain da uxagaitza.

## MARXISMOAREN SARRERA EUSKALTZALETASUNEAN

Jakifia, gertu gertuko gertaeretzaz mintzatzen ari naiz eta zail egiten zait gauzak behar bezela aztertzea, perspektiba falta zaidalako. Aldaketa aundiak eta azkarrak izan baidira euskal pentsamentuaren barruan azkeneko bost urteetan. Oar hau egitea beharrezkoa iruditut zait, orain lan honen muñean sartzen geraldako ta berriro ere gertaerak eta pentsamentuak aztertu ahal izateko astrazioak egin beharrean arkituko naizelako.

Marxismoa luzaro batean guretzat "tabu" bat izan da, madarikazio guztiak zituen bere gain, ezagutu gabe kondenatua, gaitzaren personifikazioa, kalamidade guztien iturria, materialismoaren guraso zikiña. Ez da beraz arri-tzekoa burrukalari ta rebelde gaztedi batek honelako gauza arrotz batezaz kuriosidade aundi bat izatea. Bestetik, berriz, topikoeekin burrukan dabilzanak edozertarako idikiak daude ta zirkunstantzi hoietan benetako marxista batekin arkitzeak bere biziko ondorenak uzten ditu, ta hori da euskal belaun gaztearekin gertatutakoa.

Neronek ere aitortu behar dut nere bizitzako une bortitzenetakoak, pozez eta bildurrez betetakoak, Marx eta marxistak irakurtzean asi nintzanekoak dirala. Uste nuen marxismoa erabat baztertu behar zen zerbait zela, ez

zuela baliorik, eta bat batean zenbat gezur esan zizkidaten konturatu nintzan, eta marxistak zenbat eta gehiago irakurri ta orduan eta zabalago egiten zitzaidan mundua, gizona ta historia. Ase ezifnean, konformagaitza ustean zegoen gaztediarentzat ba zirudien euskal pentsamentuaren eta euskal arazo guztien soluzioa emango zuen iturria arkitu zela. Beraz gaztedi honi gertatutako gauzarik bortitzena edo bortitzenetakoa marxismoaren arkitzea izan da.

Marxismoarekin arkitze hori munduko historiaren eta politikaren une berezi batean gertatu da. Kontestu hortan euskal belaun gaztearen —gaztedi honen zati batena beifipein— marxistatzea ez aztertzeagatik analisisko erru asko izan dituzte zenbait kritikalariek.

Gehienez, euskaltzale gaztedian marxismoaren sarrrera bost urtetik honuntzakoa da; garai hontan nazioarteko politika ta sozialismoa zertan zegoen ikusi behar dugu zenbait joeren gainean ideia garbiak eta argiak izateko.

Stalinismoa aspaldian desegifia zegoen, ofizialki guxtienez, komunista partidu ortodoxoetan. Cuba-ko gertakizunen ondorenean, Kennedy ta Kruschek "coexistencia pacifica" delako politikari eman zioten sortzea, honela gudu otzari bukaera emanaz. Ordurarte bat zen nazio-arteko komunismoa erbiditu ta zatitu egiten da, batetik sobietiko-zaleak —moderatuak—, eta bestetik maozaleak —radikalak—. Gertaera honek partidu komunista bakoitzari libertade ta askatasun aundiagoa emango dio, bakoitzak bere lekuan egokiena zaion joera izateko. Hortaz gainera, ideialogiaren barruan ere askatasun aundiagoa sortuko da komunisten baitan. Togliatti-ren testamentua famatua egingo da. Kruschek Sobietikoen Batasunaren agintaritzatik botatzen dutenean, partidu komunistak ez dute lehenago bezela "amen" esango, esplikazioak eskatuko dituzte. Castrismoarekin marxismo era berri bat sortuko da, lehenago ortodoxiatik kanpoan dagoe-na. Katolikoekin artu-eman ideialogikoak asiko dira. Urruti gelditzen dira stalinismoa, Budapest, Pozuam eta honelako gertaerak.

Ta ez dezagun Viet-nam utzi. Izaten dira garai guztietan gertaera ta arazo batzuek gizona eta gizarteak erdi-

bitzen dituena, postura artu gabe gelditu ezin ditekenak. Gizaldiaren asieran Dreyfus affera Frantzia-n, Algeria-ko gudua ta honela alderdi ta une guztietan. Oraingo, urte hauetako erdibitzaillea Viet-nam'eko gudua da. Denak diote gudu hau gaizki dagoela ta zikifia dela, baiñan ez dituzte denak ondoren berdifiak ateratzen. Erdibitzea amerikanoak kondentatzerakoan edo ez sortzen da, amerikanoak agresoreak diran edo ez erabakitzerakoan.

Zergatik aitatu gauza guzti hauek? Euskal belaun gaztearen zati batean estadu sozialistenganako jai den sinpatia ta arrera ona entenditzeko. Asko baidira gure esan eta iritzien kontra Budapest-ko gertaerak, Stalin-en garaiak etab. gogoratu erazitzen dizkigutenak amerikanoen joerak eta estadu kapitalisten egiteak kritikatzin ditugunean. Ez ditugu hoiak ahazten, hoiak ordea atzokoak dira, ez gaurkoak. Maurice Duverger-ek artikulu famatu batean zioen bezela, gaur egunean tiraniaren herri-buruak ez dute izen bezela Budapest, Moscou etab., Santo Domingo, Saigon etab. baizik. Ta ez uste gaurko zenbait estadu sozialista eredutzat artzen dugunik, gure ustean estadu hoiak ez baidute benetako sozialismoa jaso oraindik. Ala ere estadu sozialista hoiak gertuago daude gure asmoetik estadu kapitalistak baiño.

## MARXISMOAREKIKO POSTURAK

Nazio-arteko ta Euskalerrri bertako kontestua ikusirik, azertu ditzagun arkitze izugarri honen aurrean zer postura artu dituen euskal belaun gazteak. Hortarako klasifikazio batzuek egingo ditut. Honekin ez dut adierazi nahi, ordea, postura hauetako bakoitza uts utsean arkitzen danik, bakar bakarrik joera ta tendentzi bortitz eta indartsuenak señalatu baizik.

Lehendabiziko postura batean **marxologoak** jarriko ditugu. Postura hontan Marx-engan oso entendituak izanik, beren pentsamentuan ideialogiko xistima itxi bat osatu dutenak sartzen ditut. Marx-engan asi ta bukatzen diranak, Marx-engan eta Lenin-engan. Auen karakteristika inportanteena beren pentsamentua xistima oso, lojiko

ta koherentzi aundi batekoa izatea da. Ez dakigu zer diran, marxistak edo marxologoak, Marx-en aitua edo Marx-ek idatzitakoak berpentsatu dituztenak. Nik lehendabizikoa uste. Eskolastiko marxistak esatearekin adierazi liteke ondoena esan nahi dudana. Galdera guztiei, gertaera guztientzat ba dute Marx-en eta Lenin-en liburuetan zita ta erantzun bat. Berebiziko segurantzta dute bere pentsamentuan eta Marx-ek eta Lenin-ek gai guztientzat eman zutelakoan daude. Nere ustean, marxismoa pentsatu beharrean, marxismoa ikasi egin dute. Marx-en arkitzearekin arriturik, bere baitan gelditu ta finkatu dira betirako. Psikologiaren terminologian "fijatu" egin dira, itsatsi, finkatu. Ez dute ia bere kontura pentsatu behar, ez gehiago pentsatzeak dakarkian arriskua korritu beharrik. Postura honek, ordea, ezin lezake fruiturik eman, dana dagoaneko —aurretik— bai baidakite.

Ba diteke postura honen deskripzioa karikatura izatea, baiñan ez da honela, eguneroko errealtate bat da gure artean; ba dira honelakoak eta batez ere, beren segurantzta izugarriagatik deitzen dute atenzioa; ta ba dira segurantzta billa ibilliaz hoietan finkatzen diranak. Hauekin elkar-hizketa zailla ta nekoso da ta ez dut uste, xistima itxi batean bizi diran ezkerero, Euskalerrria-ren prolemak soluzionatzeko benetako ahalmenik ba dutenik.

Bigarrenoz, **marxistak bigarren epean** diranak jarriko ditugu. Hauek lehendabizi euskal esenzialistak dira, euskal izaeraren esentzian siñisten dute. Horregatik, lehendabizi euskal esentzi hori jartzen dute oñiarri ta sustrai bezela ta, hortan finkaturik, asten dira gero marxista bezela pentsatzen. Marxismoa hauentzat erantsitako zerbait da, eraskin bat. Hauen marxismoa beste ideia ta sentipen batzuek kondizionatuta dago. Serioski mintzatzen dira marxista bezela, baiña beren benetako motibazioa, sustraia ta fundamentua beste zerbaitetan, euskal izaeraren ideia batean dago. Bi sustrai hoiekin, euskaltasuna ta marxismoa, bat egingo balute, ez legoke zer esanik; baiñan ez da honela gertatzen. Bata bestearen ondoan dago, bata bestearen gainean, baiña biak ez dute batasuna osatzen, bakoitzak bere izate ta izaera berezia dute. Egia esateko, ordea, eta nere ustean, bi errealtate hoietatik lehendabizikoa —eus-

kaltasuna— gelditzen da garaille, bigarrena bere menpeko-  
ztat arturik,

Ta honela iristen gera marxismoarekiko irugarren pos-  
tura batera. Postura hau lehengoparen berdiña dela esan  
diteke, lehengoa bera, baiña beste modu batera planteatua,  
beste modu batera esana. Hauek **sasi-marxistak** dira. Esan  
dugunez, euskal belauñ gaztea bere radikaltasun eta rebel-  
di hortan laister iritxi zen euskaltzaletasunak aurrelari ta  
progresista izan behar zuelaren ondoriora. Orduan ba dira  
bere buruari galdegin diotenak, zer aurrelariago marxismoa  
baiño? Beraz, pentsatzen dute hauek, euskaltzale on eta  
zintzo bezela aurrelari ta progresista izan behar dugun  
ezkero, marxistak izan gaitezten. Hori baiño aurrelaria-  
go ta ezkertiarago izaterik ez baidago. Ta marxis-  
moen artean ezkertiarrena onartzeko ta jarraitzeko  
joera dute hauek. Joera hontako batzuek maoistak, txi-  
no-zaleak, egingo dira. Baiñan ez uste benetako mar-  
xistak izatera iritxiko diranik iñoiz, ez sobietikozale  
eta ez txino-zale. Ta hori arrazoi sakon bategatik, mar-  
xismoa justifikazio bezela artu nahi dutelako. Itzetik ortze-  
ra ibilliko dituzte Marx, Lenin eta Mao-ren esanak. Ez gera  
horregatik arrituko beren asmoetara ta ideietara egokiegi  
datozten esanak arkituko dituztela ikusterakoan. Hori  
pentsalari aundien ideiak sakabanatuak eta bakanduak,  
bere osotasunean artu beharrean, artzen diran guztietan  
gertatzen den gauza da. Katoliko ta kristauen artean  
ebanjelioarekin eta Aita Santuen enziklikaekin zer ger-  
tatzen den pentsatu besterik ez dugu. Erabat diferente ta  
kontrako diran ideiak ateratzen dituzte bertatik. Marx-  
ekin ere beste honenbeste gertatzen da, bere esanak sa-  
kabanatuak eta bakanduak artu ezkerro, komeni zaigun  
guztia esan lezaiokegu. Hori da hauek egiten dutena.  
Ez dira iñola ere marxistak, ortodoxoak edo rebisionistak;  
beste zerbait dira, euskaltzale esenzialista amorratuak, itz  
batean esateko. Beren ezkertiar, erabat ezkertiar esanak,  
itxura bat besterik ez dira, azalezko zerbait besterik ez.  
Pounjasdistak Marx aitatuaz gehiago dirudite beste ezer  
baiño.

**Laugarren posturan marxismoarekiko idikiak diranak**

jarriko ditugu, nere iritzian jatorrenak diranak. Hauek Marx berpentsatu egiten dute gure zirkunstantzi konkretuetan. Ez dute bat batean eta besterik gabe Marx-ek esandakoa onartzen, lehendabizi pentsatu egiten dute, ta gero, beharrik baldin badago, pentsatu hori zabaldu ta osatu. Ez dira batere dogmatikoak, itxiak, edozertara idikiak daude, dinamikoak dira. Honekin hauetaz esan ditekenez gehiena esana dagoela uste dut, gehiena ez bada ere bortitzena beintzat.

### **KATOLIKOAK ETA...**

Lanaren une hontara iristerakoan, neronek jokuan sartu beharra dut, eta gai hauetan sartzea katoliko euskaldun gazte batentzat izan ditekenez gauzarik zailenetakoa da. Izan ere, oraindik euskal laiko katolikoak ez gera aurtzarotik atera.

Bildur diot gai oni, egia esateko. Nere asteroko artikuluetan ez dut beñere aitatzen enziklikenez esanik, Jainkoaren izanik eta Eleizaren iritzirik. Gutxienean saiatzeko naiz hori gerta ez dedin. Asko mintzatzen da gure artean triunfalismoatzen, kondenuatzen jakina, baiña gure kondizionamentu soziologikoak jeneralean kondenuatzen duguna egunero bizitzera bultzatzen gaitu. Batetik, edozein postura artu ta jokatzeko, edozein gauza egiteko, kulturaz edo politikan, katoliko izena jarri ezker, txartel hori artu ezker, segurantz aundiagoarekin eta erreztasun aundiagoarekin jokatzeko da gure gaurko gizartean. Horregatik, askotan ikusi dugunez, edozein gauzetan katoliko zintzoa dela bat demostratu nahi izan oi da zerbait egiten asteko. Hori batetik; eta bestetik, gure artean ba dirudi batzuetan laisterketa dagoela ea nor den katolikoena demostratzeko. Danak darabilzkite Aita Santuen esanak, Eleizaren dotriña, bakoitzak berea defenditzeko ta indartzeko. Itzetik ortzera erabili ta ezer gutxi bete. Gaiñera honekin, honela itzetik ortzera esan hoiek erabilliaz, pentsatu beharrik ez dago, dana esana baidago, obediencia izatea nahikoa da, egiaren billa dabillenen duen tensiorik ez da gehiago azaltzen delako hoietan. Beren makurtasuna ta obediencia alperkeria ta ezjakintasuna da. Ez dute pentsatu beharrik, ez dute arriskatu nahi, seguruan, geldian daude. Ez da arritzekoa izango zirkunstantzi haue-



tan laikoak aulak azaltzea beste zenbait politikolari ta kulturadunen artean. Ta hori katolikoen eta baita ere euskaltzaleen artean, "ghetto" espiritua zabaldua ta indartua dagoela aitatu gabe, hortaz geroago mintzatuko baigera.

Besterik gabe ta ezer gehiago esan baiño lehenago, hau esan dezagun: gaur egunean euskal laiko gazteak laikotasun biolento ta gogor baten beharra duela, bere autonomia defenditu behar duela, bere fedearen ostentaziorik egin gabe eguneroko burrukan parte osoa artu behar duela.

Dudarik ez dago kulturadun gizon bat ezin ditekeala egon Marx eta Marx-en dotriña ezagutu gabe. Euskal katolikoen artean, ordea, gutxi, oso gutxi dira hortan daudenak. Gehienak Marx eta marxismoa besteen ahotik ezagutzen dute, iturrira joan gabe, bere benetako prolematika estudiatu gabe, bere azterketan sakondu gabe. Ezin diteke esan katoliko batek materialismo dialektikoa artu lezakenik. Espiritualismo faltso batetik materialismoa gutxitan artu ezin baldin bada ere, traszendentzian sifisten dugunok ezin dezakegu onartu materialismoak bere baitan duen inmanentzi utsa, bertakotasun soilla.

Zenbaitetan marxismoa kristautasunaren kontzientzi txarra dela dirudi. Zenbaitetan ez dira ikusten kristau aurreratuak, marxismoarekin obsesionatuak daudenak, hauek baiño aurreratuagoak nola izan; hau nola gaitzkatu, superatu, hauen ordeko "aurreratu" bat arkitu. Horregatik ez zaizkit atsegin Teilhard de Chardin eta neurri estuagoan Mounier. Ba dirudi Teilhard de Chardin-ekin batzuek hau diotela: "Ikusten duzute?, guk ere ba dugu pentsalari modernu bat, zientifikoa ta Marx bera baiño aurreratuagoa, jakintzari buruz ezkertiarra. Egon gindezke trankil, guk ere ba dugu zuek, marxistak, bezin pentsalari sakon eta azkarra. Ez dugu zuen beharrik progresistak izateko".

Egia esateko, hori dana egia izan diteke, baiñan ez dut uste egia den maitale den batentzat abiadura ona denik. Apaltasun gehiago behar dela uste dut, maltzurkeri ta okerbide gehiegi azaltzen dituela marxismoaren sustitutoaren eta ordekoaren billa ibiltze honek. Ez dut esan nahi, hau onartu behar denik, baiña bai hauengana konplejurik gabe ta apaltasunarekin joan behar dela. J. M<sup>o</sup> Gonzalez Ruiz-ek dion bezela: "Recientemente, en un diálogo con algunos amigos marxistas a la sombra acogedora de la Roma del Concilio, intentaba definir y rechazar la postura antimarxista de muchos católicos. Por antimarxismo entiendo la postura de aquellos que afirman que en la ideología marxista y en los que la profesan no existe la menor

partícula de valores positivos; o que, si existen, hay que inventar otra ideología y reclutar otras huestes que incorporen a su programa y a su acción esos mínimos valores "apresados" por los marxistas. En el primer caso, se trata de una posición claramente maniquea, totalmente opuesta al optimismo creacional del cristianismo. En el segundo caso, se trata del problema de la "inflación de la gracia, o sea, creer que la gracia —y el ministerio de la gracia, la Iglesia— tiene que producir de cuajo su propia intendencia, creando de la nada todos los valores humanos, haciendo con ello la competencia absoluta a todas las demás instituciones y grupos humanos" (1).

Uste dut, gure alarde guztiak aparte utzita, ez dugula oraindik "ghetto" espiritu hori gainbera'u.

Arriskua arrisku utsagatik ez dela maitatu behar, argi dagoen gauza da. Katolikoak bere fedeaerentzat jokabideetan segurantzak behar dituela ere argi dago. Baiña fede hori une bakoitzean eraberitu behar dela, izatera'u behar dela ere, argi dago. Horregatik, askotan bide jakifietatik atera nahi dugunok, ezin-egon ugari batean bizi nahi dugunok, arrotz bezela egiten gera katolikoen artean eta ez zaigu hori ain errez barkatzen.



Baiña sozialismoatzaz asko mintzatzen den ezkerero, eta katoliko ta euskaltzaleen artean ere bai, ezin utziko dugu aztertu gabe.

## SOZIALISMOA ZER DA?

*Sozialismoa topikoa biurtu da, kristautasuna bezela. Izenpe horren barruan era guztietako abiadurak sartzen dira. Ainbeste dira, gaiñera, bestaldetik sozialismoaren erak, bakoitzak berari komeni zaiona artu*

(1) "El Cristianismo no es un humanismo", J. M<sup>a</sup> González Ruiz, Ediciones Península, Madrid, 1966. Interesgarria iruditzen zait liburu hau, eta orain aitatzen dedan ezkerero, bere gain zerbait esatea. Derrigorrean irakurri beharrekoa dela uste dut. Liburuaren egilleak Kontzilioaren XIII-gn. eskema delakoaren egiturari parte aundia izan zuen eta, nere iritzian, gaur eguneko theologilari onenetako bat da. Kristautasunarekin milla mistifikazio egin oi izan dira; mundutasunari dagokionez, beraz, kristautasunaren errealdadeak berpentsatu behar dira. Hori da liburu hontan egiten dana.

lezake. Hortik eskubi muturreko jendeak ere askotan bere buruari sozialista izena jartzea. Gaiñera, sozial-demokrata nazio-arteak, komunzki sozialista izenarekin ezagutzen diranak, duen programak ez dut uste iñori buruauste aundirik sortuko dionik. Gizonaren dintasuna, gizarteko justizia, klaseen berdintasuna, pakea etab., nork ez ditu onartzen?

Itzak oraindik sentidu bat baldin badute, ta jeneralidadeetatik iges egin nahi badugu, sozialismo itzari ta ideiarri zeaztasun aundiago bat eman behar diogu.

"Ex cathedra" moduan ezin dezaket esan hau da benetako sozialismoa ta gaiñontzeko guztiak ez dira egiazkoak, falsoak baizik. Baiñan hori posible ez bada ere, puntu batzuek jarri ditezkeela uste dut sozialismoaren abiadura duela batek onartzeko. Gutxienean puntu hoiek onartzen ez badira ta bere hoiien barruan jokutzen ez bada, sozialismoa sentidu gabeko itz batean biurtzen da, demagogirako erabiltzen den zerbaitean, eskuindar politika baterako ezkertiar soiñekoan.

Ta, luzatu gabe, mamira jo dezagun. Puntu bakoitza banaka aztertu dezagun.

### **Klaseak ba dira**

Metaphisika alde batera utzita, kondizionamendu soziologikoan erabili ditzagun gure pentsakizunak. A zer nolako poza artuko luteken batzuek, klaseak desegin dirala sinistaraziko ahal balezate! Ez da klaseak klaseagatik maite izateagatik, baizik eta sozialismoa dela-ta eztabaidaren muiña hontan dagoelako.

Soziologiari buruz gure gaurko gizarteetan klaseen banaketa, dibisioa, ba dela ikusten da. Klaseen arteko dibisio hori orain eun urte bezelakoa ez dala, esan beharrik ez dago. Politika burrukan errealidade hau, theorian gutxienez, danak gaiñezkatu nahi dute. Baiña batzuek, errealidadea honela dela aitortuaz, behar diran ondorenak ateratzen dituzte. Besteak, ordea, ta hauek gehienetan gutxienean interesak defenditzen dituzte, klaseak ozidenteko Herri aurreratuetan ezereztu dirala siñistarazi nahi digute. Izan ere, klaseak ez balira gizartea ez legoke aldatu beharrik, lehengoan jarraitzekotan legoke, ta honela bakoitzak bere lekua gorde behar du.

Gauzak besterik dira, ordea. Klaseak gizarte kapitalista (edo neokapitalista) guztietan zutik jarraitzen dute. Ta klaseen arteko diferentzia ez dago batzuek asko irabaztean eta besteak oso gutxi, batzuek —gutxienean— produzioaren ondasunak bere menpean dituztelako ta besteak —gehienak— hortatik urruti gertatzen diralako. Politikan ezin diteke

jokatu kondizionamentu soziologiko hau ahaztuta. Gaiñera, errealidade hori ez da berez aldatuko; gutxiago produzioko ondasunak menperatuta dauzkatenak. Sozialista den batek hemendik asi behar du: Gaurko gure gizartean klaseak ba dira, klaseen arteko diferentzia produzioko ondasunei dagokionez egiten da ta situazio hori ez da berez konponduko, gutxiago goikoak.

### **Klaseak burrukan daude**

Baliteke burruka itzak odol usaia adieraztea zenbaitetan, baiña burruka esaterakoan ez da gorrotoa ta odola adierazi nahi. Askotan honela izan da, baiñan ez da hori berezkoa. Kapitalistak (edo neokapitalistak) beren izaera langilleari bere lanaren zati bat ostutzeagatik osatzen dute. Beren izaerari bizi ahal erazitzekotan hori egin beharrean arkitzen dira. Langilleak, berriz, benetan beren giza izaera osatzeko ordena (edo desordena) desegin beharrean arkitzen dira. Amor eman behar lukenak, kapitalistak, ematen ez duen ezkerero, ez da borondate utsez auzia konpontzen, ta burruka sortzen da. Langilleei beren eskubideak ez zaizkie emango, ezagutuko, artu egin beharko dituzte; ta artzen utziko ez zaien ezkerero...

Burruka hau derrigorrezkoa den edo ez, historiaren motorra den edo ez, beste eztabaida bat da. Gaurko politika ekintza konkretuan sozialista batek errealidade hori ezin dezake ahaztu: klaseak burrukan daudela, ta langilleak ezin dezaketela gizarte berria jaso burruka hori gabe.

### **Gizarte berria langilleengandik etorri behar du**

Gizarte kapitalistetan inor gutxi dira gizarte berri bat jaso behar dela ukatzen dutenak, baiña nork dute interesa hori gerta dedin? Langilleak bakarrik. Besteak zertarako aldatu behar dute gizartea?

### **Klase batasuna derrigorrezkoa da**

Behar bada beste era batera esan behar litzake puntu hau: planteamentu politikoak egiterakoan sozialista batek ezin dezake jokatu klasearen batasunetik kanpo.

Klasearen batasunaren gain mistizismo faltso bat izan dela ukatzerik ez dago. Ba zirudien, batzuen esanak entzunaz, klasearen batasuna lortu

ezkero gainontzeko guztia, ots, sozialismoa, besterik gabe etorriko zela. Matematikariak darabilkiten esanarekin, ordea, sozialismorako klasearen —langille klasearena noski— batasuna beharrezkoa dela, baiña ez nahikoa. Desestalinizatze ondorenean sortu da Herri bakoitzak sozialismorako bere bide egokia arkitu behar duela esatea. Ta ondoren jatorra da hori. Geroztikan ikusi dugu, gainera, sozialista izeneko estadiak elkarrekin asarre asarrean ibilliak dirala Europa-n; edo, obeto esateko, estadi sozialista bakoitzak bere politikan nazioaren interesak nazio-arteke langille klasearenak baiña gorago jarri dituela. Hori sobietiko ta txinoen arteke eztabaidak aitaflu gabe. Herri bakoitzak sozialismorako bere bide egokia izatea derrigorrezkoa da, baiña naziotasuna klasearen batasunetik kanpo pentsatzea sozialista joera batean iñola ere onartu ezin ditekiana da. Ez da honekin errealdade batzuek, eginbehar batzuek besteak baiña garrantzi aundiagorik ez dutenik, hoiiek danak politika arazoetan klasearen batasunetik kanpo aztertzea ta erabiltzea berebiziko arrisku aundi bat da.

Sozialista politika batean ezin ditezke nazioa ta gainontzekoak lehen-dabizi jarri; ta gero sozialismoari dei egiteak hori defenditzeko, sentidurik ez du. Klasearen batasunaren barruan egin behar dira planteamentu hoiiek.

### **Produzioko ondasunen herriaren jabetasuna**

Benetan kapitalista xistima ezereztu nahi baldin bada, produzioko ondasunen jabetasuna eraberritu behar dela dudarik ez dago. Adieraztzaill, planifikazioaren lekuan derrigorrezko herri bat jarri behar dela ta irabaziak ekonomi xistimaren motorra izaten ezin lezakela jarraitu, dudarik ez. Hori egi biurtu dedin produzioko ondasunen jabetasuna herriarengana, ots, langille klasearengana biurtu behar duela sozialista xistima batean, ukatzerik ez. Honen modalidadeak, ordea, erabat diferentek izan ditezke, kojestioa edo estadiaren jabetasuna etab.

Kapitalismotik sozialismora pasatzea pakean egin ditekian edo ez, parlamentuaren bidez edo bestela etab., taktikari dagozkion eginkizunak dira. Ez dira orain eztabaidatzekoak.

### **BUKAERA**

Nere ustean, bukaeran, lantxo honen bukaeran jakifia, iritxi gera gaiaren muifera. Puniu bakoitzak eta aitaflu ez diran beste bortitz

batzuek, azterketa sakon bat behar lukete. Bakar bakarrik, sozialismo itza parra parra dabillen ezkerero, jendea zertaz mintzatzen den konaturatu dedin puntu inportante batzuk aitatu ditut.

Katoliko batentzat, batez ere, interesgarriak dira ta milla ezin-egon, tensio ta desegokitasunen iturri. Kapitalaren eta lanaren arteko desberdintasuna konpontzerakoan mistizismora jotzen delako. Borondate ona derrigorrezkoa da, baiña soziologiaren legeak eta kondizionamentua ezin ditezke baztertu, ezta gutxiago ere.

Ta ara nundik beste baterako nahiko gaia uzten dudan.

# euskal-kezka

## baroja' ren baitan

---

Etxaithar

—Jarraipena—

ESTEBAN GARIBAI ETA ZAMALLOA, 47'gn. horrialdean. Gipuzkoar kondairagille sonatuaz honela dio Baroja'k: "Don Esteban etzan kontentatzen heriotza ondoren bere arima iflorako ez izatea, alegia, ez gorako eta ez beherako, ez Jaungoikoa'rentzat eta ez deabruarentzat, horrela baitio Tirso de Molina'k, **Joyas de las Montañas** deritzan komedian, giputz kronista nabarmen-nahiaz (1) mintzatzean. Bere **Compendio Historial**'en zeatz-meatz demostratu zuen Tubal Caín Herri-asabak (2) euskeraz egiten zuela eta Arrasate'ko hauzotar izan zela eta eusko-historigillearen asabetako bat. Seguru aski, Tubal Herri-asaba **Erdiko-kale** eta **Olarte-kale** tartean bizi izan zen eta baxo erdi bat hartuko zuen "Baxili"-ren ardandegian edo Perico "Aragiarrapatzailea"-renean.

Honeraíño Pio Baroja. Komentari batzuek egin ditzagun lerro hauezaz. Fausto Arotzena jaunak bere "Garibay" liburu biografiku ederrean honela dio gure kondairagillearen arima abotara ekarri

duiten ipuiez: "Garibai'en arima bezala egon, ez neke eta ez ospe; Garibai'en arima bezala, ezpaitzuen hartu nahi izan ez Jaungoikoak, ez deabruak; Garibai'en arima bezain galdua, eta horrelako esaerak, "pertsonea urduri, zalantzakor, behin bateko eta behin besteko direnei" aplikatzen zaie".

Eta aurreraxeago: "Garibai'en arima nekepekoaz jardun dira Quevedo'z gaiñera, Calderón, Lope, Tirso de Molina, **Vida y hechos de Estebanillo González**'en egille izenbatega, Villaviciosa eta Avellaneda".

Eta buka dezagun Arotzena jaunaren beste lerro ernegarri hauekin: "Egia, esan beharreko egia da, elezahar (3) hontan Judu Erratuaren eta are gehiago Eiztari Basatiaren bixtako kondar bat da-goela. Honek, eusko-folklorearen barruan, Apaiz eiztariaren mituarrekin ditu anaitasun. Aldakerak eta antz-izenak bereiziki estudiatu dituzte Jose Migel Brandiaran eta Julio Caro Baroja maixuek. Azken honek bildutako antz-izenak hauetxek dira: **Eiztarie, Eiztari baltza, Salomon errege, Salomon apaiza, Mateo Txistu, Juanico Txistu, Juanito txistularixa, Martín Abade, Erregen txakurra eta Abade txakurra**. Haueaz gaiñera hor dugu **Pixti Juan**, Donostia eta Errenteria bazterretan bildua. Guztihonek aditzera ematen digu, mituak zeifien sus-trai sakonak egin zituen Garibai'en lurraldean".

Baroja'k, berak oi duen umore eztenkorraz nabarmentzen du Garibai'en xalotasuna (4), euskaldunok Tubal'en ondorengo zuzen egin nahi gaituelako. Uste hau, ordea, aldi artako gizon ikasietan guztiz zabaldua eta honartua zegoen eta horregatik ez du harritzekorik Garibai'ek ere pekatu egitea sagar goxo horri kozk egiaz, gizona, gehiago edo gutxiago, bere aldiko seme baita. Baiñan, hutsune hauek baztertuz, gure kondairagillea bere garaikideen gaiñeko genduen historigintzan. Horra Arotzena jaunaren iritzi jakingarria ondorengo errenketan.

"Askoz oifiazpi sendoagoan zapaltzen zuen —hala behar baitu—, dokumentuez baliatzen zanean, hutsaren inguruan ibilli behar zuenean baiño. Luma ganoraz eta segurantziz dabilkio, agiri zaharretan finkatzen delarik, baiñan, liburu-aulkian ezer ezpa-dauka, luma zalantzakor dabilkio nora-ezean".

"Hori gertatzen zitzaion, eta garaikade zitzaizkion beste batzuei baiño areago, jatorriez eta kronologia ipui-modukoez ari zanean. Hau gertatzen zaio ere Gipuzkoa'ri buruz ari delarik, gertaldi jeneralekin oztopo egiten duenean, batipat lanbrotsu ageri baldin ba'dira eta usteratu (5) nahi duenean giputzek parte izan zutela edo izan zezaketela zerbaiten". Eta beste adigarri batzuen artean hau jartzen du:



Nola etziran egongo, bada, giputzak Orreaga-Luzaide'ko gudaldian? Garibai'entzat, dio Arotzena'k, "izan zitekean eta komeni zen guztia, izan zen". Esaldi giartsu honek egiten dio argibide Arrasatearrak Tubal'ez dion guztiari.

"Gauzak horrela ikustetik —darraikio Arotzena jaunak—, dator kio kantauritar tesisari (6) atxikia egotea, alegia, Gipuzkoa Kantauriko lurralde barruan sartuta zegoela sustengatzen dutenetakoa izatea eta hortikan sortzen den ondorena, hots, giputzek garaikor gudukatu zutela Erroma'ko armen kontra Ernio'tik urbilleko alderditan. Baiñan, Zaldibia baiño kritikuago izanik, eztizu honartzen Tiber-en ertzetan egindako gudu ipuitsu baten egitasuna, eta jakifia, erromatarrek garaituak izanik!" (7).

XABIROIA, 53'gn. horrialdean. Hondarretan ibilli oi den arrain txipitxo bat da. Donostiarrok euskeraz "xabiroia" esan oi diogu eta gazteleraz "shabirón". Erdal-iztegiek, ordea, eztakarte izen hau (8). Bestalde, eztirudi euskal-jatorrikoa. "Txipiroia" **chipirón**'etik sortu den bezala, "xabiroia" **jabirón** edo **chabirón** delakoren batetik sortu zitekean. Azkue'k ere eztakar bere iztegian. Baroja'k honela deskribitzen du hitzez-hitz: "Hondarretan ibilli oi den arrain xume (9) bat da eta beronen arantzak oin hutsetan sartzen baldin ba'dira, haundidura mingarriak egiten ditu".

ITSAS-GASTAÏÑA, 54'gn. horrialdean. "Euskeraz **itsas gastaifia** esaten zaio Indietako gaztaifari", dio Baroja'k. Nik ez nuen izen hau ezagutzen, Gipuzkoa'n, eskuarki, **indi-gaztaifia** esaten baitugu. Azkue'k ba-dakar, ordea, **itsas-gaztena** Benaparru'ko eta Zubero'kotzat. Beraz, ez luke harriztekorik Bera kokaturik dagoen Bortzerrieta'n eta Naparroa-garaia guzian **itsas-gaztaifia** deitzea.

EIZTARI BELTZ, 56'gn. horrialdean. "Eiztari Beltz apaiz eiztaria, gauez mendiz-mendi ibiltzen zan, erbiak esetsiz". Ikus "Eiztari-Beltz"-ez eta ideko izaki ipuitakoez "Garibai" hitzean dioguna.

ELGEA, 57'gn. horrialdean. Ze hiri aurkezten du Baroja'ren **Elgea**'k? Bakar batean pentsatu ote zuen edo bizpahiru iturburu darabilzki hiri hau deskribitzeko? Ezta erreza erantzuten. Pasarte batean dio: "Doña Cristina'k erabaki zuen, Adrian, handik urbil egiten zen Elgea kosta-herrira joan zedilla", alegia, Itzar'etik edo egiazko Itziar'etik urbil egiten zena.

375'garren horrialdean beste azalpen hau egiten du: "Elgea'ko itxas-sarrera, golfo triste eta bakarti bat zan. Ibaiak bertan egiten zion itxasoari hur-opari. Sortalderuntz punta apa eta pizartsu bat zeukan.

Hau, hugarri (10) berdetsu batean bukatzen zan eta suge haundi bat zirudien, huretan lo”.

Aurreraxeago, 376'gn. horrialdean: “Itxas-bizkar (11) hontan eta Elgea'tik urrutira gabe, baseliz bat zegoen: Santa Katalina. Itxas-bizkarrak ipar-azetatik babesten zuen hur-kolkkoa eta honek portuari segurantzia ematen zion”.

Hain zuzen, itxas-bizkar batean eta Deba'tik oso urbil dago Santa Katalina baseliza. Horrialde berberan, ordea, beste xehetasun bat Zumaia'ren alde mintzatzan da. Honela dio: “Hobeto ba'zerizkion Elgea'raifo jarraitzeari, San Telmo hauzoko ardanegi batera la-gunduko zion”.

San Telmo mendia eta hauzogunea, hau haren oifetan, Zumaia'ko itxas-ertzean daude eta ez tut uste Euskalerrri'ko kostara guztian beste San Telmo'rik dagoenik. Baiñan, bestalde, ez derizkiot tristeza Zumaia'ko hur-kolkokiari, eta bai, osterara, Deba'koari. Gaifera'ko xehetasunetatik ez diteke ondoren haundirik atera. Beraz, ba dirudi, Elgea'n Deba eta Zumaia nahasirik daudela.

Beste xehetasun bat gai hontaz “Las Inquietudes de Shanti Andia” eleberri xarmanagarriak ematen digu: “Luzaro eta Elgea bitartean dagoen hiru milla t'erdiko kostak bi mundu liferente bereizten ditu: batetik, Luzarotarren seriotasuna; bestetik Elgeatarren intenteria (12), aldakeria (13) eta arropuzkeria” (14). Hiru milla t'erdiko luzeroa, gutxi gora behera Deba eta Zumaia artean dagoena da. Baiñan, ze hiri iduki zuen gogoan Baroja'k Luzaro deskribitu zigunean? Bestalde, ba'al da Debatarren eta Zumaiarren artean “Itzea'ko Basajaunak” margozten digun aiurri liferentziarik?

PERTXETA-PERTXENTA, 72'gn. horrialdean. “Ikastetxean, andereño Dolores'ek finette hotsa zuen. Maltzurra eta argia zela uste zuten. Andre Kristina'k pertxeta edo pertxenta esaten zion. Euskeraz, Bidaso'z goitikoan (15) beñepein, frantses finette'en antzeko zentzua duen hitza da”.

Finette frantses hitzak gaztelarazko “picarilla” edo halatsu esan gura du eta gure pertxenta'k, Gipuzkoa'n, Azkue'k dakarrenez, “mari-sabidilla” da. Orobat Muxika'renean, Giputz-Bizkai erabilkizunez. Ostera, Lhande'renan ezta ageri “pertxenta” edo “pertxeta” eta ez bestelako aldakizunik ere. Ba-dirudi, beraz, Don Pio'k etziola kanpai-hotsari nundikakoa zen igarri.

AITA DOMINGO MEAGHER, 78-79'gn. horrialdeak. “Jaun Fermin Estebe'ri, ardorik ez probatuarren, etzizaion gaizki iruditzen jai-egun batez oparo jan eta edan zedilla, eta bere iritzia sendotzeko, Aita

Domingo Meagher'en bertso batzuek kantatu (16) zituen euskeraz. Aita Meagher jesuita zan, Donostia'n jaioa, Carlos III'garrenaren denboretan Lagunarteko besterekin batean irazia (17), desterruan Florenzia'n hilla eta Eiretar jatorrikoa. Meagher'en egintza hontaz ezta ahapaldi bat besterik gelditzen. Hauxen da, bero haundiz, Jaun Fermin Estebe'k kantatu ziena Antton izena zeramatzen Lastur'ko bi aita-seei. Horrela zioten bertsoak:

Gizon bat ardo gabe  
Dago erdi hilla,  
Marmar dabilta (18) tripak  
Ardoaren billa;  
Baifian edan ezkerero  
Ardoa txit ongi  
Gizonik txatarrenak  
Balio ditu bi".

Meagher'tarrak Ingalterra'ko erlejifio-guduak bultzata etorri ziren Donostia'ra. Hauek, XVII'garren eta XVIII'garren mendetan biziro irauan zuten bi hugartetan. Oliverio Cromwell'ek eman zion asiera 1649'gn. urtean, Carlos I'goari lepo egin ondoren, Eire'ko lurak heriosuar gorrituz, katolikotasunaren kausari eusten ziotelako.

Jacobo II'garrenaren erreñualdian arnasaldi bat izan zuten Eiretarrek, hau katolikua baitzan, baiñan Gillen Orangearrak garaitua izan zenean Boyna'ko gudaldian 1690'gn. urtean, berriro asi ziran eurentzat lengo esetsaldi eta ezbeharrak. Batez ere, gorriak ikusi zituzten Jurgi I'goaren eta Jurgi II'garrenaren erreñualditan, Eskozia eta Eire Jakobo II'garrenaren alde altxa zirenean, zeren, gudaldi asko irabaziarren inglesen kontra, azkenean, eskoziarrak eta eiretarrak garaituak izan ziran Culloden'en 1746'garren urtean.

Eiretarrak berriro jaiki ziran inglesen aurka 1769'gn. eta 1798'gn. urtetan, baiñan inglesekin odoletan ito zituzten bi altxaldiok eta Irlanda'ri orduraifioko buru-jabetasuna erauzi zitzaion eta Ingalterra ta biek legerri bakar bat egin zuten 1800'garren urtean.

"Erruzka izan ziran —dio hitzez-hitzez orain artean jarraitu diogun J. P. B. jaunak "Euskalerrria" aldizkarian (19)—, XVII'garren eta XVIII'garren mendetan Bilbo'ra eta Donostia'ra bizitzera etorri ziren eiretar leñargiak, eta euren artean aipa dezakegu Patrizio Meagher zalduna. Hau, XVII'garren mende azkenetan sal-erostaritzan ageri zaigu Donostia'n. Hemen jaio ziran, beste seme batzuen artean. Do-

mingo Patrizio eta Daniel. Biok, denboraren buruan, Jesus'en Lagunarteko seme argi bezala ageri zaizkigu".

Jose Mañterola'k (20), besteren artean, biographi-datuok ematen dizkigu Aita Domiku Meagher'ez:

"Aita Meagher, jesuita eta teologu ospatsua Donostia'ko hirian jaio zan 1703'ko Martxuaren 17'an. Jesus'en Lagunartean honartua izan zen 1717'ko Urrian. Behar estudioak benetan saiaturata egin ondoren, aipatutako institutoan egin zuen profesia haundi-hotsekoa (21) 1736'gn. urtean.

"Galizia'ko Santiago Ikastetxean Filosofia katedraduna izan zen eta Teolojiarena Salamanca'n eta Valladolid'en".

"Italia'ko desterruan nekealdi haundiak jasan zituen etsipenez eta egonarriz eta txit kristauki hil zan (Florenzia'n) 1772'ko Agorraren 21'ean".

Aita Meagher'ek euskeraz utzitako lanen artean kontserbatzen zaizkigunak, bat Baroja'k dakarren ahapaldia da eta bestea "Ardoari jarritako itz neurtuak". Biak dira ardoaren goraiagarri egifnak, baiñan, Baroja'k dakarrenetik ahapaldi bakarra gelditzen zaigu eta beste hontatik hamar. Behardaba, aizken hau "Ni naiz txit gauza gozoa", lenengo ahapaldiaren asiera neurtitzarekin ezagunagoa da.

(Jarraituko zaio)

(1) Testuan: extravagante.

(2) Patriarca.

(3) Leyenda.

(4) Candidez.

(5) Ustera etorri (=suponer).

(6) Tesis cantábrica.

(7) Gai hontaz, alegia, gipuztek eta erromatarrek Errezil'en eta Tiber'en eduki zituzten uestezko gudaldiez, txit ernegarriak dira Juan Inazio Iztueta'k jarritako bertsoak izen honekintxe: "Gipuzkoatarren kondaira Erromatarren denboran, Iztueta'ko Juan Inazio'k amarreko aunditan ipiñia" (*Gipuzkoako dantza go-goangarrien kondaira*, 203'gn. hor. ald., Tolosa'n, Eusebio López'en moldiztegian, 1895).

(8) Arraintxo hau bizirik ezagutu nahi dezanak, Donostia'ko "Aquarium"-era jo besterik ezta. Hantxe ikus diteke —ezkutua egon oi den hondarpetik ateratzea daket ba'zaio—, dibuju ta guzti, izen hoekin: Jakintza-izenez, *Trachinus draco*; euskal-izenez, *Xabiroya-Salbera*; gazteleraz, *Araña-Escorpión*; frantsez, *La grande Vive* eta ingelesez *Greater Weerer*.

(9) Narro, txipitxo. Testuan: minúsculo.

(10) Arrecife.

(11) Promontorio.

(12) Testuan: petulancia.

(13) Testuan: volubilidad. Nik uste, "kaxkarinkeria" ere ez legokela gaizki, kostarrok kaxkarin fama aspaldikoa baitugu.

(14) Testuan: fatuidad. *Engreído*, *vamidoso* bezala harturik, hauxen dela

uste baitut Pio Baroja'ren adieraz-nahia. Baiñan, *meocio, tonto*, aditzera eman nahi izatekotan, *ergelkeri, kirtenkeri, txatzukeri* edo horrelako zerbait itzuli beharko genduke.

(15) Testuan: por lo menos en vasco-francés. Aberrizaletasun edo atzerri-zaletasun hauzia alde batera utzirik, jakintzari gagozkiola soilki, euskera "vasco-francés" eta "vasco-español" sailletan bereiztea kirtenkeri izugarri bat da. Batetik, "vasco-francés" eta "vasco-español" euskera frantsesarekin edo españerarekin nahasitako hizkuntza bat litzakelako, eta bestetik, gure euskalkiak gizonek asmatutako muga guzien gainetik daudelako. Halaxe, Bizkaiera Gipuzkoa'n sartzan da, Gipuzkera Nafarroa'n, nafarrera Gipuzkoa'n, Laphurdiera Nafarroa'n, Benaparrera Nafarroa Garaian, Zuberoera Erroñkari'n, Bizkaiera Araba'n eta Benaparrera Laphurdi'n. Ba-dakigu mintzaira hau ditura hutsezkoa dela eta ez dela zeatz-meatz hartu behar, baiñan aitortu behar da ere eundaka urtetako ez-jakiniaren frutu ustel bat dela eta garaia dela sasira botatzeko.

(16) Baroja'k "recitar" dio, baiñan euskaldunak, bertsoak oro eta euren artean Aita Meagher'enak kantatu egiten ditu eta horretxegatik hitz hau aldatzeko eskubidean iritzi diot nere buruari.

(17) Jaurtigi (=expulsar).

(18) Baroja'k "dabiltzac" dakar, Manterola'ri jarraituz. Baiñan, "c" (orain "k") horrek eztauka zuribiderik iketan baizik, baiñan irabiakera hontan "zebiltzak" da eta ez "dabiltzak". Gaiñera, beste aditz-loko guziak zukan datoz.

(19) "Euskal-Erria", Tomo XLVII, 1902, 2º semestre, 84'gn. hor.

(20) "Cancionero Vasco", Primera Serie, Tomo III, 61'gn. horr. ald., Enero de 1878.

(21) Solemne.

# EUSKAL-ADITZA

---

## neuk ikusten dedanez

txomin amasorrain

Euskeraz bi eratako aditz-aldi edo aditz-denbora ditugu: itz bakarrez adierazi litezkenak eta bi itzez osatu bearrekoak. Ba dira bai, irukoitzak ere, esate baterako "SARRI JOAN IZAN NAIZ" eta orrelakoak, baiña gaurkoz utzi ditzagun azken auek eta lotu gakizkien itz bakarrezko eta bi itzezko aditz-ele edo "flexioeri". Sakon begiratu ezkerero, badute bateko ta besteko aditz-eleak kidetasunik asko. Euskeraz itz bakarrez adierazi ditezken aditz-aldiak ez dira iru baiña eta iru oriek eta beste zenbait, aditz-ele bikoitzez. Ez difot aditz-aldi oriek denak erabiltzen diranik eta bearrezkoak diranik ere. Baiña ekin dezalogun geure azterketa-lanari.

"NAGO" "INTZAN" "DATORKE"... itz bakarrezko aditzak dira; osoak. Itz bakarrez, esan bear dana bete-betean adierazten dute. Aletarako edo muestratarako jarri ditudan iru aditz-ele orieri dagozkien aditz-aldiak besterik ezin ditezke itz-bakarrezko aditz-elez euskeraz adierazi.

"EGON NAIZ" "IZAN INTZAN" "ETORRIKO NAIZ" "IKUSI DUT" "IKUSTEN DUKET"... aditz-ele bikoitzak dira. Aletako orietan ikusi ditekenez era ortako aditz-eleak "IZAN" eta "UKAN" aditzak lagun osatzen dira.

Itz bakarrezko aditz-eleak EURAK EURENEZ ez dira osoak; geuk osatzen ditugu aurrez dakigun zerbaitez. Agertzen edo azaleratzen ez dan zerbaitez aditz orri "ixil-itun" deritzaiokegu. Jarri dezagun adibide arrunt bat: Iñoiz ikastolan galdetu bear izan det "Ze ordu degu?"... ta "Laurden gutxiago" erantzuna. Orduan ba dakit BOST laurden gutxiagoak dirana, neure irakastaldia lauretatik bostetara bitarte bait-da. Eraberean, itz bakarrezko aditzek ere ez dute bear dan guzia esaten edo agirian jartzen, baiña geuk "ixil-itunez" osatu egiten ditugu. Orra nola:

Aldiaren baitan edo "aldi-mendean" sortzen dan gertakizun baten adierazpena da aditza. Iru ataletan zatitu genezake aldia: Orain-aldi edo Oraindea, Len-aldi edo Antzinatea, ta Gerokoa. Gertakizun bategan ere, aldakorra izaki, iru "egoera" edo burupide nagusi berexi genitzake: Etortzeko dan gertakizuna, au da, oraindik izaten asi ez dan gertakizuna, burutzen edo osatzen ari dan gertakizuna, eta burutua, osatua edo amaitua dan gertakizuna. Euskerak baita beste laugarren "egoera" bat ere bereixten du: Bai izango ez izango, zalantzan dagon gertakizuna. Azkeneko "egoera" au adierazten duten aditz-eleak ez dira oso ezagunak, gure alderdi onetan beintzat. Beraz, goi-goitik begiratuta, ta laburkiro, aditzaren lanbidea ontantxe datzala esan genezake: Alde batetik, gertakariaren "egoera" azaldu, au da, gertakari ori oraindik astekoa dan, asi ta osatzen ari dan, ala osatua, burutua edo amaitua dan adierazi. Eta bestetik, gertakizun ori aldimende bateri lotu, au da, Antzinateko, Oraindeko, ala Geroko gertakizuna dan adierazi. Bi itz bear dira, beraz, aditzak dauzkan bi alderdi oriek adieraziko badira. Ostera berriz, gertakizun batek izan litzaken iru "egoera" nagusietatik bata "ixil-itunez" aditzen badegu, orduan itz bakar bat ("ALDI-ITZA") naikoa da aditza bete-betean adierazteko ta orra zer diran aditz soil edo itz bakarrezkoak. Eta orra zergatik ezin litezken iru aditz-aldi baizik adierazi itz bakarrez.

Ba dakit auzi-gaiari estu-estu lotu gabe egiten diran guengogorakizun auek ez dirala ulertzeko errexak izaten, baiña alaxe ta ere, ez da alperra izango ta egin dezadan oraindik beste guengogorakizun bat ere: Bete-betean ta argi ta garbi azaltzera iristen ez banaiz ere, gero gaiari lotu gakizkionean, argi ta garbi ikusiko dezu orrenbeste-ko berriketaz zer esan nai dedan.

Begiratu batean badirudi gertakizun baten "egoera" nagusiak iru izanik eta beste iru aldiaren baitan gertakizun orrek euki litzaken toki edo uneak, iru ta iru zer oriek elkarrekin bana-banatuta ateratzen diran bederatzai adierazpideak naiko izan bear luketela gertakizun bat

zearo (era guzietara) adierazi al izateko, baiña ez da onela. Ikusi baiña; Aldiaren mendeak mugatuak dira, asiera ta amaia dute, beraz iazo liteke "LENGO" aldi-mendea baiño lenago buruturiko gertakizun bat adierazi bear izatea, eta baita "GEROKO" aldi-mende bat baiño geroago sortu liteken gertakizun bat adierazi bear izatea ere. Beraz, gertakizun baten "egoera" nagusiak iru baiño ez diralarik, aldi-mende mugatuari buruz bostera datoz. Beraz, gertakizun batek euki litzaken bost "egoera" auek eta gertakizun ori kokatu liteken iru aldi-mendeak elkarrekin banabanatu ezkeru, amabost adirazpide sortuko lirake. Esan degu len ere ez dirala adirazpide oriek guzi-guziak erabiltzen eta ez dirala bearrezkoak ere.

Ikusi dezagun orain, euskeraz nola bereixten diran esandako bost "egoera" nagusi oriek; orretarako, izki ezaugarri auetxek ezarzen zaizkio aldian aldiko aditzari:

"A" "—" (ezer gabe) "TZEN" (edo "TEN") "KO" eta "TZEKO" (edo "TEKO").

Beste izki, edo obeto esateko beste atzizki bat ere bada: "TZER"; oraintxe izango ez izango adierazten du. Adibidez: "ILTZER DA", esan nai bait-du "Bai ilgo ez ilgo dago". Naparro'an ezaguna omen da, emen ez.

Aldi-mendea "IZAN" edo "UKAN" aditzen bidez erakusten da, aditza zertarikoa dan: "NINTZAN" "NAIZ" "NAITEKE"?; "NUEN" "DUT" "DUKET". Euren adierazpena orren garbi ikusten dalarik ez dute azalpenik eskatzen.

Aztentu ditzagun orain, goratxoago aipatu ditugun "egoerak" adierazteko erabiltzen diran atzizki oriek, eta gaiari estuago lotzearen, aukeratu dezagun aditz bat, edozein; bedi "JAIO" aditza.

#### **Lenbiziko egoera.— "JAIO-A"**

Aldi-mendea (edozein dala) baiño LENAGO BURUTUTAKO edo OSATUTAKO gertakizuna adierazten du.

#### **Bigarren egoera.— "JAIO" (ezer gabe)**

Aldi-mendearen (edozein dala) BARNEAN edo BAITAN BURUTUTAKO gertakizuna adierazten du.

#### **Irugarren egoera.— "JAIO-TZEN"**

Aldi-mendearen (edozein dala) BARNEAN edo BAITAN BURUTZEN ari dan gertakizuna adierazten du. **Auxe da itz bakarrezko aditzetan ixil-itunez aditzen dan "egoera".**

#### **Laugarren egoera.— "JAIO-KO"**

Aldi-mendearen (edozein dala) BARNEAN edo BAITAN BURUTUKO dan gertakizuna adierazten du.



### Bosgarren egoera.— “JAIOTZEKO”

Aldi-mendez gero (edozein aldi-mende dala) BURUTUKO dan gertakizuna adierazten du.

Zalantzan jarri liteken badaezpadako gertakizun bat ere azkeneke “egoera” onetxez adierazten da, ta baita ezinezkoa dan gertakizun bat ere, barre eragin bearrez edo barne-irriz baldin bada ere, eta errexha da jokabide onen zergatikoa igertzea. Oraintxe edes-tuko dedan gertakari barregarri onetxez adierazten du argi ta garbi azkeneko adierazpide ori:

Banendorren bein, artean mutil gaztetxoa, Bilbo'tik etxerantz la-runbat arratsalde bateko bultzian, oi nuenez. Aldi zoriontsu aietan larunbatetako bultzi orretan etortzen giñanok, gutxi asko elkar eza-gutzen genuen eta nahastar etortzen giñan. Bein, OLAKUETA-BE-RRIZ'ko geltokian eiztari batzuek sartu ziran, eize-tresnaz ondo ornituak, zenbat zakur ere eurekin. Euren “trepetxuok” apala-sare-tan buru-belarri atontzen ari ziralarik, bultzian zetorren bidazti batek, zakur mardul-mardul bateri so eginiik, galdetzen du ots aunditan andikal-deko ertz batetik... “Zee... txakur ori umiak eitteko jagok ala?”... Eta orduan eiztarietako batek, bururik ere itzultzeke, erantzuten du eraberean ots aunditan... “Baa... eitteko egon'gok... arra dok eta!”...

Emen esan guzia obeto uler dezagun, esanalditxo bat jarriko det aditz soillez eta bikoitzez osatua. Baifia aurrez oar bat egin bear det: Ba dira esanaldi onetan bi aditz, “BIZI” ta “AGIRI”, esandako arae-tatik zerbait aldeardu egiten diranak. Beste aditz guziek “JAIOTZEKO” “ETORRI” “JOAN”... burutuaz batera amaitu egiten diran gerta-kizunak adierazten dituzte; “BIZI” ta “AGIRI” aditzek ostera ez. (“BIZITU” ta “AGERTU” aditzek bai). Orretxegatik edo ez dauka euskerak “BIZITZEN” eta “AGIRITZEN” aditz-era auek.

Jarri dezadan orain agindutako esanaldia. Irakurtzeko ta azter-tzeko errexago egin dedin, soillik “Izatezko” edo “K”-rik gabeko adi-tzak nabarmenduko dituz izki nagusiz. Orra:

### ESANALDIA

Arrasate'n JAIOTZEKO NAIZ; bai, antxe JAIOTZEKO NINTZAN, 1910 garren urtean IGAROTZEKO NAIZ; alizarra; ni JAIOTZEKO NINTZAN, 1907 ga-rren urtean “Daniell” alizarra AGERTU ZAN; ni JAIOTZEKO NIN-

TZAN. Urrengo urtean JAIOKO NINTZAN. 1908 garren urtean "MOREHOUSE" alizarra AGIRI(TZEN) ZALA JAIIO NINTZAN.

Ba zan nere jaioterrian, nere aurtzaroan, "Zaldibar" zeritzan zugazti bikain bat; araxe JOATEN NINTZAN jolas egitera. Bein osteko orma gaiñera igota NENGOEN eta irrixt egin eta ibaira ERO-RI NINTZAN. Gizon batek JASO NINDUEN eta onik NENGOELA ikusirik esan zidan: "Mutikoa, gaur JAIIO AIZ". Gero, ETXERATU NINTZANEAN aitameri esan nien "Ni gaur JAIIO NAIZ". Parre egiñaz esan zidaten: "Ez enetxo, i aspalditxo JAIIOA AIZ, i antzifiatxo JAIIO INTZAN".

Len aitatutako "zaldibar'ko" astigardian naiko jolas egin ondorik egarri NINTZANEAN, "Kontseziño"-ko iturrira JOATEN NINTZAN. Bein, ara NINJOALA, zigarro-kondar bat idoro nuen, artean ixotua, eta sekulako keetan AGERTU NINTZAN iturrian. An, pitxarrak bete bitartean berriketan egitera JOATEN ZIRAN andreak eunda berealdiko parreak egin zituzten. Beste bein "Zaldibar" aretako astigardian adarrik-adar naiko karraputxi, urratu ta arratada egin ondoren JOAN NINTZAN oi nuen iturrira ta bertan murkoa bete begira ARKITZEN ZAN andreak ia "ijittokumia" NINTZAN galdetu, ta nik arro-arro, baietz erantzun ondoren, kupittuta nunbait, goxo bat eman zidan.

Aldi aretan pozik BIZI(TZEN) NINTZAN. Ez nekien gero beste erri batera JOANGO NINTZANIK. Jaioterria laga ta beste erri batera JOATEKO GIÑALA jakin nuenean naigabe aundia artu nuen. Orain Bergara'n BIZI(TZEN) NAIZ eta esateko ementxe AZIA NAIZ eta bertan ZAARTUKO AL NAIZ; bai, bertan ZAARTZEKO NADIN (?) baiña ZAARTU NAITEKENEAN (?) ere ez NAITEKE AAZTUKO (?) neure jaioterri maiteaz.

## ESANALDI ONEKIKO AZALPEN ARIN-LABURRA

Arrasate'n JAIIO-A NAIZ.—"NAIZ"; Oraindea adierazten du, beraz Oraingo aldiari buruz ari naiz. "JAIIOA"; Oraingo aldi-mende au baño lenago burutatuko gertakizuna.

antxe JAIIO-NINTZAN.—"NINTZAN"; Lengo aldia (gero ikusten danez 1908 garren urtea)

adierazten du. "JAIO"; Lengo aldi-  
mende orren barruan (1908'an) bu-  
rututako gertakizuna.

...alizarra AGERTU ZAN.—"ZAN"; Len-aldia (1907-garren ur-  
tea). "AGERTU"; Aldi-mende orren  
barruan burututako gertakizuna.

ni JAIO-TZEKO NINTZAN.—"NINTZAN"; Len-aldia (1907).  
"JAIOTZEKO"; Aldi-mende orrez  
gero gertatutakoa.

...urtean JAIO-KO NINTZAN.—"NINTZAN"; Len-aldia (1908).  
"JAIOKO"; Aldi-mende orren ba-  
rruan burututako gertakizuna.

igota NENGOEN.—"NENGOEN"; Len-aldia. Ixil-itunak,  
osatzen edo burutzen ari zan gerta-  
kizuna adierazten dit. Beraz, oitura-  
aditz kutsua kendu ezker, "EGO-  
TEN NINTZAN" ainbat da.

ez NAITEKE AAZTUKO.—"NAITEKE"; nolabait adierazi bear  
eta onelaxe adierazi nai izan det ge-  
roko aldi-mendea.  
"AAZTUKO"; geroko aldi-mende  
orren barruan burutuko dan gerta-  
kizuna.

Oarra.—"Ez NAITEKE AAZTUKO" aditz-tankera gaur ez da  
ezaguna "k"dun aditz-saillean izan ezik; mendiz aruntz "IKUSTEN  
DUKET" eta beronen antzerako aditz-eleak erabiltzen bait- dira. Era-  
borean, neure ustez, erabili litezke beste aukerak ere: "IKUSIA DUKET"  
"IKUSI DUKET" "IKUSIKO DUKET" eta "IKUSTEKO DUKET", len  
esan bezela aditz-ele oriek guzi-guziak bear-bearrezkoak ez baldin  
badira ere, euren antzerakoz ordeztu bait-litezke.

Urrengo batean J.L. aditz irukoitzeri emango diegu beste azter-  
tu bat. AGUR.